


ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia
estreinatuko dugu
igandean: goizeko
hiruretan, ordu
biak izango dira.



Bat, bi eta...

Uharte Arakilek Sakanako Herri Lasterketa eta errefuxiatuen aldeko martxa hartuko du bihar / 18-19

Etxarriko sufrimenduaren mapa

Azken 80 urteetan arrazoi politikoengatik sufritutakoak jaso nahi ditu udalak / 2-3

Uharte Arakilgo Udalak Berrienerako ibilbidea turismo baliabide gisa seinalezatu eta homologatu du / 7



Europako Nekazaritza Politika Baturako 6.692,47 hektarea deklaratu dituzte Sakanan / 12-13



Asmiavin, Amiantoak Kaltetutakoen Nafarroako Elkartearen eratu da Altsasun, bigarrenez / 5

Fiskaltzak Fran Baldarendako 21 urteko espetxe zigorra eskatu du 11/2013 sumarioan / 8

Sakanaoptika
egituratuak - erabiltzaileak - erabiltzaileak

AUDIFONOETAN %30ERA ARTEKO DESKONTUAK

2x1
BETAURREKOETAN

948 563 124 • Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu • www.optikasakana.com



Silvia Marañon, Eneka Maiz eta Maria Saez de Albeniz udaleko lantaldeko kideak Euskal Memoriako buru Iñaki Egañarekin.

Azken 80 urteetako sufrimenduak jasotzera

Etxarri Aranazko Udalak 1936tik gaur egun arte herritarrek bizi izandako sufrimenduen giza mapa bat osatu nahi du. Lan deskriptibo bat izanen da non etxarriarrek garai desberdinetan pairatu dutena jasoko den.

ETXARRI ARANATZ

Sufrimenduaren mapa deitzen diote Etxarri Aranazko Udaleko kideek sortu nahi duten lanari. Etxarriarrek azken 80 urteetan bizi izandako sufrimendua jasoko duen giza-mapa bat, izen-abizenak dituen katalogo moduko bat. "Diagnostiko orokor bat, hutsune bat betetzea xede duena. Ezin diogu etorkizunari in-

darrez begiratu iraganari bizkarra emanda". Abendurako argitaratu nahi lukeena udalak. Horretarako, aurre-dokumentazio lana egiten hasiak daude (agiri-funtsak, hemeroteca eta bibliografia arakatu) baina etxarriarren lekukotasunekin osatu nahi da.

Memoriaren aldeko auzolan horrek Etxarri Aranatz bere

sufrimenduaren ispiluaren parean jarri nahi du. Eneka Maiz Ulaiar alkateak esan duenez, "mapa inklusiboa izanen da, transbertsala, inolako balorazio etiko-politikoetan sartu gabe. Prozeduretan Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sortutako eta nazioarteko hainbat gortek jasotako irizpideei eta metodologiari jarraituko zaio".

Etxarriko alkateak gaineratu duenez, "mapa hau gure iraganari zor zaion tresna da, Etxarriko Udalak herritarren eta gizartearen esku jarri nahi duena. Ez da, inolaz ere, lan definitibo bat izanen, baizik eta aurrerago gara litekeen diagnostiko-lan baten lehen urratsa edo hastapena".

Lekukotasunak jasotzeko zerbitzua

Alkateak jakinarazi du, azterketa baliatu nahi dutela "etxarriarren lekukotasunak jasotzeko, Etxarrin sufritu dutenen testigantza zuzenekin jantzi nahi genuke". Horregatik deialdia egin du udalak: "lan hau osatzeko edozein etxarriarrek bere testigantza eman dezala. Berak arrazoi politikoengatik sufrimenduren bat edo giza eskubideen urraketa bat pairatu badu, edo inguruan ezagutu badu, kontatzeko zerbitzu bat jarri dugu".

Hura erabili nahi dutenek udaleko zinegotziekin harremanetan jartzea besterik ez dute. Bestela, Euskal Memoria fundazioaren 688.693.778 telefonora hots egin dezakete. Joxerra Bustillo da ikerketaz arduratuko dena, Iñaki Egañaren zuzendaritzapean. Azaroaren 20ra arte egonen da martxan zerbitzu hori. "Afektatuen ekarpena erabateko diskrezioz tratatua izanen da".

Gobernuak lagunduta

Nafarroako Gobernuak bakea eta elkarbizitza sustatzeko diru-laguntza deialdiaren ebazpena jakinarazi zuen joan den asteko asteartean. 1936ko estatu kolpeak eta terrorismoak eragindako biktimak aitortzeko aktoak egitera edo gertuko memoria eta elkarbizitza sustatzera bidera-

tuko zirela jakinarazi zuen. Laguntzaren hartzaile direnen artean Etxarri Aranazko Udala dago.

Historia-memoria lantzeko Etxarriko Udalean sortutako lantaldeko kide diren alkatea eta Silvia Marañon eta Maria Saez de Albeniz zinegotziek egitasmoaren berri asteartean eman zuten. Eta proiektuari Nafarroako Gobernuak emandako babesaz azpimarratu zuten. Alkateak jakinarazi zuenez, Euskal Memoria fundazioa Etxarri Aranazko Udalarekin elkarlanean ari da proiektu horretan.

Egindako bidea

Lehenik gogorarazi zuen 36ko estatu kolpearen ondoren eraildakoak omentzeko urteetan Etxarrin Otsaportillo ekitaldia antolatzeke talde bat egon dela. Duela bi urte Urbasako saroiko lezean agertu ziren ustez Otsaportillon zeuden etxarriarren gorpuak eta horrek "lan dinamikak aldatu zituen" azaldu du alkateak. Ondorioz, gaur egun Otsaportilloko ekitaldia Sakanako udal eta eragileen ardura da.

Maizek esan zuenez, "memoria lantaldean planteatu zen 1936ko omenaldi horretan eta orduko biktimen gaian gelditu ginela. Hausnarketa egiten hasi ginen: 1936tik gaur egunera arte hainbat sufrimendu eta hainbat giza eskubideren urraketa baziren. Gai horri ez zaio modu oso, integral, inklusibo eta transbertsal

"MAPA OSOTASUNEAN ERAIKI NAHI BADUGU, SUFRIMENDU GUZTIEN ADIBIDEAK JARRI BEHARKO GENITUZKE"

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Bego Zestaurekin errefuxiatuen aldeko martxaz
- Elena Aldasororekin Altsasuko 2. merkataritza festaz
- Etxarri Aranazko sufrimenduaren maparen aurkezpena

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

batean heldu". Abiapuntu horretatik, alkateak azaldu zuen "orduan ikuspegi orokor bat lantzeraz" pasa zirela. "Eta ikusi genuen urte hauetan Etxarrin hainbat gertaera eta hainbat giza eskubideren urraketa egon direla. Ikuspegi desberdinetatik eta batekoak eta bestekoak: direla hildakoak, direla torturatutakoak, atxilotutakoak eta beste-lako sufrimendu motak". Horretaz guztiaz jabetuta, sufrimendu hori guztia jasoko lukeen giza mapa bat gutxienez egin behar zela erabaki zuten.

Harremanak

Lantaldeak hori aztertu zuen eta Euskal Memoria fundazioarekin harremanetan jarri ziren egin nahi zuten lanaren berri emateko. "Laguntza tekniko eman digu hau nola azalduz". Baina ez zen izan Etxarri Aranazko Udalak jo zuen ate bakarra. "Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentura jo genuen, Bizikidetzara eta Bake Zerbitzuak gaiaren inguruko diru-laguntza deialdia egin zuelako". Egitasmoak Nafarroako Gobernuaren

oniritzia jaso duela nabarmendu alkateak.

Alkateak argitu nahi izan du zergatik erabiltzen duten sufrimenduaren mapa kontzeptua: "Foro Sozialarekin harremanetan jarri gara eta proiektu hau aurrera eramateko koordinatu egin gara. Zenbait kontzeptu eta zenbait ildo argitzeko". Maizek adierazi duenez, eragotzi nahi izan dute "nork eragin duen sufrimendua, zeinek jaso duen, eta horren balorazio etiko-politikoetan sartzea". Sufrimendua eragin dela aitortuta, "hori da mapa honetan jaso nahi dena. Mota guztietako sufrimenduen isla izateko".

Lanaz

Euskal Memoriak halakoetan ohi duenez 1936tik hasi eta gaur egunera arteko lan esparru metodologiko eta historikoa hartuko du, "80 urte horietan kudeatu memoriari dagokion kontu guztietan" azaldu du Iñaki Egañak, fundazioko buruak. "Erabiltzen ditugun arauak nazioartean erabiltzen direnak dira. Nazio Batuen Erakundeak onartutako giza eskubideen kar-



Lekukotza zerbitzua erabili nahi dutenek udal lantaldekoei esan edo fundazioaren 688.693.778 telefonora hots egin dezakete.

ta 1948ko abenduaren 10ean onartu zuen eta ondorengo hamarkadetan horren inguruan sortutako arautegia da". Egañak azaldu duenez, 45-48 giza eskubide urraketa dira gaur egun: zaurituak, hildakoak, hainbat eskubideren urraketak, genero indarkeria, bahiketak, espetxeratzeak, erbesteratzeak, ihes egindakoak eta abar. "Arautegi luzea eta transbertsala dago. Sufrimendua ez dagokio ideologia bati. Gizakiaren sentimendu sakon bat da. Irizpide unibertsalen arabera biktimek badute

aitortza, justizia eta erreparazioerako eskubidea".

Fundazioak Nafarroan egin dituen lanak hiru zatitan banatu ditu, "Gerra Zibilaren ondorioak oso latzak eta sakonak izan ziren". Horregatik, ikerketaren epe bat horri, gerraren ondorio hurbilei, eskainiko dio Euskal Memoriak. "Nahiz eta Etxarrin gerra frontierik ez izan, hildako batzuk izan ziren; 11 fusilatu, tartean, 1933an alkate izandako Felix Lopez Sanchez (Litiagon, Zaragozan jaioa eta altsasuar batekin ezkondua).

Errepublikaren aldean eta Francoren armadan etxarriar hildakoak izan ziren, 25-26 bat. Erbestera joan zirenak, espetxeratutakoak izan ziren eta abar.

Frankismoa izanen da beste epe bat. "Giza eskubideen urraketak banan-banan aztertuko ditugu. Eta, ahal den neurrian, anonimotasuna gaindituz, izen abizenak jartzeko kasu guztietan". Euren asmoa da dituzten izen abizenak jartzeko kasu guztietan. "ahal den neurrian mapa osatzea". Egañak jakinarazi duenez, hildako azken makia Francisco Etxeberria etxarriarra izan zen, 1951n Oiartzunen hila.

Azkenik, joan den mendeko 50eko hamarkadatik gaur egunera arteko epea dago. Aurreko epetako metodologia berarekin aztertuko dituzte giza eskubideen urraketak. "Badakigu hildako batzuk izan zirela, kontroletan, espetxeratutakoak, torturatutakoak, bahitatuak, hildakoak kontroletan, Jesus Ulaiar alkate ohiarena, gerra zikineko-15 bat gertakariak, kale borrokako ekintzak... Nahi badugu mapa osotasunean eraiki, sufrimendu guztien adibideak jarri beharko genituzke. Horiek kontuan izanik lanari helduko dio fundazioak."

Lanketa aurreratuta dago eta hainbat informazio jaso dela jakinarazi du Maizek. "Izan ere, fundazioak haien agiri funtsak dituzte. Hemerrotekara eta bibliografiara ere jo da. Jasoa da goen informazioa bilduko da".

Euskal Memoria fundazioa

Etxarri Aranazko sufrimenduaren mapa egiteaz arduratuko dena Euskal Memoria fundazioa da. Nafarroan sortu zen 2009an, "giza eskubideen urraketa guztien bilketa eta transmisioa gizaratearen eskura jartzeko tresna bat izatearen erabakia hartuta". Dokumentazio zentro bat da. Fundazioak informazio bilketa lan mardula egin du.

Azken 80 urtetako biktime anitzen inguruan, milaka izen-abizen berreskuratuz, asko anonimatuak zirenak. Era berean eta ahal den heinean, giza-eskubide bortxaketa horiek eman ziren testuinguruak. Fundazioaren lanak, kolektiboak eta lokalak, historian lizentziatuek egiten dute, adituek lagunduta.

Aurretik Nafarroan egon diren lanak eta artxiboak jaso ditu, tartean Gerra Zibilari buruzko garrantzitsuenak, Altaffayarena, Jimeno Juriorena; hitzarmen bidez eskuratu duena. Hainbat lanketa eta ikerketa mota desberdinak egiten dituzte. Esaterako, duela bi urte euskal erbestea ikertu zuten; urte bat lehenago gerra zikinaren gaia landu zuten.

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan historia-memoria gaian kontsultarako lantaldea sortu du eta bertako bost kideetako bat da fundazioa, gobernuaren arabera bazkide gehien duena. Gehienbat erakundeetarako lan egin du Euskal Memoriak (Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta hainbat talderendako).



PPrendako "aberrantea" da

Alderdi popularrak Etxarri Aranazko udalean zinegotzi duen Juan Antonio Extremeraren hitzetan: "aberrantea da udalak egin asmo duen 1936tik gaur egunera arteko herriko sufrimenduari buruzko lan dokumentala". PPKo zinegotziaren ustez "udal taldearen asmoa ETaren terrorismoko 40 urteetan gertatutakoaren kontakizuna perbertitzea da, banda terroristako biktimak umiliatzen saiatuz eta benetako borroakoak eta biktimak direnen artean herritarrek nahastu nahian".

PPkoa Bilduri zuzendu zaio eskatuz: "alegiatzko biktimak bilatu beharrean, ETaren indarkeriaren benetako biktimak aitortu ditzen eta jakina haren jardun kriminala salatzea" eskatuz. Jesus Ulaiar alkate izandakoa erail zuten tokian "edukiontzia egotea" kritikatu du, "zitalkeria handiagorik". Zinegotzi popularraren iritziz "doilorki eraildako pertsona baten memoria ohoratzea gutxienez toki horretan plaka bat jartzea da". Hura eskatzen mozia atzera bota zela gaineratu du. Horregatik, Extremerak udalari eskatu dio Nafarroako Parlamentuak onartutako erabakia bete eta han plaka bat jar dezala.

PPko zinegotziak Euskal Memoriari "halako planteamendua duen ekimena ematea bereziki larria" dela iritzi dio. Haren azken lana, *Nombres para recordar*, "gorrotagarria da" popularrarendako.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

El bon camí, mai no és llarg de seguir

Kataluniako afera politikoa dela eta, eguna joan eguna etorri asalaturik gabiltza hurrengo urratsa zein izanen den asmatu ezinik. Hitchcockek ere ez zukeen hainbeste suspentserik sortuko. Nola nahi ere, armarik gabe, edozein egitasmu politiko gauzatzetik bazela esaten zen euskal gatazkaz, baina hori gezur hutsa dela ikusten ari gara, batez ere, aldarrikapen hori gauzatzeko bermerik ez bada.

Horregatik, kataluniar gatazka makina bat ikasgai eta irudi eskaintzen ari zaigu. Hona hemen horietako batzuk. Lehenengoa, Govern; egoera juridiko-politiko autoritarioaren araudi zurruna gaintzeko ausardia eta kemena. Bigarrena, espaniarakeria, gaztelar kulturaren errotua, konkista eta asimilazioz nagusituta, kulturalki eta politikoki supremazista, ingelesaren sustatzaile bertako hizkeren aurka, eta erabat zentralista eta monarkikoa (PP-PSOE-Cs). Hirugarrena, espainiaratasuna, nazionalitateen arteko parekidetasuna eta lankidetzaren sustatzen dituen, eta errepublikazalea (Ps). Laugarrena, foralista faltsarioak, paktismotik sumisiora pasatu direnak (UPN). Bosgarrena, Erregea, espainiarakeriaren ikurra, ustez ongi hezia eta poliglota (gaztelania, ingelesa eta frantsesa), (ez katalanera, ez euskara eta ez galiziera), noren errege da, bada, gizaseme hori? Seigarrena, Konstituzioa, espainiarakeriaren soberania agintean bermatzeko tresna, jite kolonialista eta bortitza duena. Zazpigarrena, demokrazia, hitz ustela batzuen ahotan, herritarren aldarrikapen zilegiari aurre egiteko legedi autoritarioaren ezarpenarekin nahasten baitute. Zortzigarrena, Europa, demokraziaren ginetik interes ekonomiko eta geostrategikoak lehenesten dituen estatuen multzoa. Eta beste hainbeste izan litezke.

Hala ere, etorkizunak, helburu bateratuak lortzeko, nazionalitateen arteko errespetua eta lankidetzaren behar ditu oinarri; ez inposaketa eta arpilaketa. Horregatik, geroa idatzi gabe egonik ere, 155. artikulua aplikazioaren aurrean, konfiantza dut Kataluniarengan, eta 1-O ikusita, itzaropena dut ataka honetatik onik aterako dela. Hortaz, ongi etorri Kataluniako Errepublika!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kaptuluka bidali.
 Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kaptuluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.
 Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
 Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK

Izar gorriari...

IRUNE UNAMUNO GOIKOETXEA
ALTSASU

Diren datak direla, dena datorrit burura. Gogoratzen elkarrekin geundenean? Kalera atera, eta askatasun osoz egoten ginenean? Hitz egiteko, besarkatzeko, elkarrekin egoteko, muxu emateko... trabarik ez genuenean?

Gau batean, genuen dena lapurtu ziguten. Nola liteke urte batean bizitako guztia, normalizat genuena, hainbeste aldatzea? 2016ko udazkena eta hortik aurrera bizitakoa gogorra izan da; gugandik urrun daudenak,

gure artean izateko irrikitan egotea, astebururo 1.000 km egitea 40 minutuz kristal baten atzetik haiek ikusteko (nahiz eta sentimendu gazi gozoz osatutako bisita izan), gorputzan sartzen zaizun sentimendu nazkagarria, askatasuna lapurtzen dieten leku ilun horietatik ateratzerakoan bertan uzten dituzula jakinda, Altsasura bueltatzean, 12 hilabete beraien ahotsak entzun egin ez dutenei zer moduz dauden azalduz... Nola izan daiteke hori gure gaurko normaltasuna?

Hortaz aparte, zutaz ere ez gara ahazten, San Donato argitzen zuen izar gorria.

Urte bat pasa da eta gertatutako guztiarekin, beste kolpe bat bezala jaso genuen; kolpe latza. Baina azalean zeneukan «indarra ta aurrera» aintzat hartuz, aurrera jarraitu dugu.

Izar gorriari, zuri, urrun ditugu lagunak, hasieran aipatutako egun horietan bezala besarkatu arte eta denek haien ahotsak entzun arte, gure borroka etenik izango ez duela zin dagizugu.

Bitartean, zuei, maite zaituztegu eta gogor eusteko ozen oihukatuko dizuegu. Etxean izan arte!

Muxurik beroena. Ez etsi, eutsi!

OBJEKTIBOTIK

Menditik gora eta behera lekuko bat eramaten

Herritar batzuk ikusi omen dira Bortzirietako mendietatik Sakanaraino. Bidetxurretatik, errekek zeharkatzen, pagadi eta hariztien azpitik, gora eta behera, gau eta egunez. Zama eder eta aberats baten zaindaria ziren mendizaleak, Nafarroa Oinezeko lekukoaren zaindaria, ederki gozatu dute "trabesiarekin". Orain beste ibilbide bat hasten da, nafar-euskaltzaleon festa antolatzearena, aspaldi hasi zena, bai noski, baina dagoeneko bertan duguna.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzaileak:

Ruben Imaz Alcaide
lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675 · 661 523 245

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bernoako galtzada Urdaibain. ARTXIBOA

Bernoako galtzada euskaraz ezagutzeko

Haurrak eta gurasoak euskaraz hizketatzeko ibilaldia antolatu dute. Azaroaren 4an, 15:30ean

URDIAIN

Urdinen... inko du eskuaz leloa du Urdiaingo Gurasoen Euskarra Batzordeak. Herriko gurasoen artean kezka dago haurrek gaztelaniaz gero eta gehiago hitz egiten dutelako. Euskararen erabilera handitzeko, Iñaki Eizmendiren aholkularitzarekin, zenbait jardura antolatzen hasi dira. Eta horien artean daude ibilaldiak. Horiek euskara erabiltzeko tartea izatea nahi dute.

Udaberrian eguraldiak bitan ez zuen lagundu. Hirugarrenean, bai, eginen dute. Oraingoan bigarren plana prest dute. Asmoa da 6 eta 12 urte arteko haurrekin Bernoan barnako ibilaldia egitea gurasoek. Haiekin batera Ion Zufiaurre joanen da, parajeak majo ezagutzen dituen eta Urdiaingo euskararen ederki hitz egiten duena. Hark emanen dizkie azalpenak. Izena emateko baldintza bakarra dago, haurren gurasoak eusliek, euskaldunak izatea.



Elkarteko kideetako batzuk batzarraren ondoren estatutuak legeztatzeko datuak ematen.

Amiantoaren Biktimen Elkarte, berriro hastera

Bigarren ezarpen batzarra egin zuten, ostiralean. Asviamenten helburuak amiantoaren arazoaren berri ematea da eta kaltetutakoei gaixotasunak aitortzen eta kalte ordainak jasotzen laguntzea da.

SAKANA

Urte bat eta egun bat geroago Altsasuko Gure Etxea eraikinak Nafarroako Amiantoaren Biktimen Elkartearen, Asviamenten, ezarpen batzarra hartu zuen ostiralean. Bigarrena ezarpen batzarra da, joan den urtean, toki berean, ezarpen eman baitzuten. Baina urte baten buruan Asviamenten ez zegoen Nafarroako Gobernuaeren elkartearen erregistroan eta kide batzuk gaiari berriro heltzea erabaki zuten.

“Elkartea ezin izan da eratu presidente ardura hartu zuena gai pertsonalekin oso lanpetuta egon delako eta, azkenik, presidente berria aukeratu behar izan dugu. Ea elkartearen ezarpenak

gai garen”. Jose Manuel Buenoren azalpenak dira, Asviamenten elkartearen presidentenak. “Gogoz” hartu du ardura. “Garrantzitsuena elkartearen ezarpena da, kaltetuek arazo asko dituztelako. Haiei aholkularitza eta argibideak emateko, ahal den guztiari laguntzeko ea funtzionatzen dugun”. Euskadiko elkartearen laguntzarekin sortu zen Nafarroako eta harremanetan eta koordinatzen segituko dutela azaldu digu presidente berriak.

Buenok azaldu digunez, “zorritzarrez amiantoarekin jende askok lan egin du. Kasu asko ez ateratzea espero dugu, baina egunero gehiago ateratzen dira.

Lehen jendeak ez zekien zer zen amianto. Baina orain badaki. Eta badakite zein ondorio dituen. Gainera, gero eta kaltetu gehiago ateratzen ari dira”. Ostiralean 26 pertsona izan ziren ezarpen batzarraren. Elkartearen eratu gabe egonda ere bakarren bat gerturatu izan da, “baina martxan jarri arte ez dugu lau haizetara zabaldu nahi izan elkartearena. Behin elkartearen ezarpen eskuorriak eta kartelak aterako ditugu jendeari hemen gaudela esateko”. Informazioa eta aholkuak emateko hitzaldiak eta beste egitea aurreikusia dute. Administrazioaren aurreko ezarpenak tramiteak lehenbailehen egin nahi dituzte.

Funtsaren sorrera

Urte batean aldatetako izan dira amiantoaren gaiaren inguruan. Kaltetuei gehien eragiten diena hilaren 11n onartu zen Espainiako Kongresuan. Euskal Autonomia Erkidegoak proposatuta amiantoaren kaltetutakoendako konpentsazio-funtsa sortzea onartu zen. Alderdi guztiek aldeko botoa eman zuten, abstentziora jo zuen PPK ezik. “Ikusi beharko da. Jarraipena egin beharko zaio, ea zer dagoen edo ez dagoen. Legeak ongi begiratu behar dira. Onerako izatea espero dugu”, esan digu Buenok.

Kompentsazio-funtsaren sorrerak amiantoaren biktimendako aldateta handia dakar: orain arte kalte-ordaina jaso ahal izateko epaitegira jo behar zuten eta auzitegiak onartu egin behar zuten zutena amiantoaren eragin-dako lan-gaixotasuna zela. Europako hainbat estatutan urteak daramatzate konpentsazio-funtsak martxan. Harendako dirua gizarte segurantzako lan mutualitateko soberakinak (% 90) eta estatutuak (% 10) jarriko dute.

Amianto eta gaitzak

Surik hartzen ez zuelako, isolatzaile perfektua zelako, arina zelako eta merkea zelako erakuntzan, siderurgian, automobilgintzan, itsasontzien, trenen eta hegazkinen erakuntzan erabili zen Amianto joan den mende erdialdetik 2001era arte. Amiantoaren erabili zuten pertsonen eta horien arropak garbitu izan dituztenak gerora minbizi jakin batzuk garatu dituzte. Horregatik, amiantoarekin lan egin dutenei Nafarroako Lan Osasunaren Institutura jotzeko eta material horrekin lan egin dutela probatzen duen idatzi bat aurkezteko aholkatzen diote. Eskera ontzat jotzen badute osasun zaintza programan sartuko dute. Hala, gaitza lehenago harrapatzeko aukera izanen da. Eta institutuaren aitortza izatea amiantoarekin lan egin izana jasotzen duen dokumentu ofizial bat izatea da, epaiketaren edo dena delakoan baliagarria izanen dena.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Xabier Gorritz eta Zio Herrero Sakana Lanbide Heziketako institutuaren atean. GARALUR

Ikasleek ekintzaileen testigantza jaso dute

Sakana LH institutuko ikasleek altsasuko bi ekintzaileen testigantzak jaso zituzten tailer batean. Haien esperientziaren berri emateaz aparte, ekintzaileak laguntzeko dauden zerbitzu eta bitartekoen berri jaso zituzten ikasleek.

SAKANA

Cederna-Garalurrek antolatuta, ekintzaile esperientziak lehen pertsonan tailerra antolatu zen Sakana LH institutuan astear-tean. Garalur Nafarroa Ekintzaile Sareko kidea da eta horregatik antolatzen ditu ekintzailetza sustatzeko egitasmoak. Sarea Nafar Lansarek finantzatzeko du. Tailer horren bidez Garalurrek ikasleei azaldu nahi die ekintzailetasuna lana lortzeko aukera bat dela. Horrekin batera, ekintzaileak laguntzeko dauden baliabideen eta zerbitzuen berri ematen zieten. Baina guztia teoria izan ez zedin bertako ekintzaileen lekukotzak eraman zituen Garalurrek kla-

sera, ikasleek ekintzailetza benetako aukera dela erakusteko.

Soldadura, mekatronika eta mantentze espezialitateko 14 ikasleek Zio Herreroen eta Xabier Gorritzaren esperientzia eza-gutzeko aukera izan zuten. Biek euren pasioa bizimodu bihurtu dute. Ikasleei azaldu zieten zerk bulkatu zituen euren lanpostua sortzera, ideia nola sortu zen, martxan jartzeko prozesuan zailena zer izan zen, lorpen handienak zein izan ziren eta zein aurreikuspen dituzten.

Gorritzek (Xabi Tattoo Altsasu) eta Herreroek (Valkiria body art) LHko ikasleei azaldu zieten gehi-ago eskaini ahal izateko elkartzea erabaki zutela. Ez dute elkar

lehiakide moduan ikusi, herri berean egonda ere. Tatuaje zentro bakarrean zerbitzuak bateratzeak eskaintza handiagoa emateko aukera eman diela azaldu zuten. Hala, Gorritzek tatuatu egiten du eta azken modeloko laser tresna batekin tatuaje zaharrak, kolore galduta-koak edo aspergarriak kentzeko aukera du. Herrero tatuatzeaz aparte piercingak jartzen ditu. Horrela, bien artean, tatuaje zentro askok baino eskaintza zabalagoa lortu dute.

Cederna-Garalurrek Arbizuko industrialdeko Utzugane eraikinean du egoitza. Ekintzailetza zerbitzuarekin harremanetan jartzeko: 639 900 336 telefonoa.



Txurrukupuntatik ibarreko ikuspegia. GUAIXE

Garalurrek landa garapenerako proiektuendako deialda

Nafarroako Mendialdetik aurkeztutako proiektuetarako 1.792.477 euroko poltsa du.

SAKANA

Cederna-Garalurrek Mendialdeko Landa Garapenerako Proiektuen 2014-2020 programako oinarri arautzaileak eta bigarren deialdia egin berri du, lastailaren 21etik abenduaren 18ra arte zabalik dagoena. Nafarroako Gobernuak eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak finantzatzeko dute programa, 1.792.477 euro banatuko duena.

Ekonomia-jarduera helburu duten proiektuen edo ekoizpeneko proiektuen % 30, gehienez, finantzazioa izanen dute. Eragin ekonomikoa baino eragin sozial handiagoa dutenak edo ekoizpenekoak ez diren proiektuei dagokienez, finantzaketa % 70ekoa izanen da. Nolanahi ere, laguntzaren muga 50.000 eurokoa izanen da.

Cederna-Garalur elkartearen aurkeztutako diren proiektuak

ondoren aipatzen diren ardatz estrategikoetan multzokatutako 32 jarduera-ildoren baten barnean sartzeko modukoak izanen dira: herritarrak tokian-tokian mantendu eta finkatu; lehen sektorea eta basogintza; natura baliabideen ustiapen jasangarria; zerbitzuak garatu eta ondareari balioa eman; eta enpresak finantzatu eta enplegua sortzen lagundu. Informazio guztia eskuragarri dago www.cederna.eu web-orrialdean.

Cederna-Garalurren programaren helburu nagusia Nafarroako Mendialdeko tokiko garapena sustatzea da, enpresa-ehuna sortzen eta finkatzen lagunduz, eta, bestetik, zerbitzu eta azpiegitura publiko berriak garatzea, Garalur elkartearen kudeatzaile Ibon Mimentzak esan duen moduan, "Nafarroako Mendialdea bizitzeko eta lan egiteko lekua izan dadin".

Idareta Gizarte-Laneko Deontologia Batzordean

Estatuko Gizarte-Laneko Kontseiluko Deontologia Batzordea sortu berri bost kide daude.

IRURTZUN

Francisco Idareta Goldarazena, Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) Gizarte-Laneko Departamentuko irakasle eta ikerlaria, Gizarte-Laneko Kontseilu Nagusiko Deontologia Batzor-

deko kide izendatu dute, aditu gisa. Espainian estreinakoz sortu berri da batzordea eta irurtzundarrak aparte beste lau kidek osatzen dute. Kotsularako eta aholkularitzarako talde-organoa da batzordea. Bere egite-

koa gizarte-lanaren Deontologia Kodeko baloreak eta oinarriak kontuan izanik etika eta deontologia profesionalaren gaineko irizpideak ematea da. Aparte, lanbidearen balioak eta oinarriak mantentzea, ogibidearen legitimazioa eta kolegio antolakuntza finkatzea, profesionalen praktika ona bermatzea eta deontologia profesionalaren kultura eta trebakuntza bulkatzea.

Idareta gizarte-langile izan zen. NUPeko Gizarte-Laneko Departamentura pasa zen ira-



Francisco Idareta Goldarazena. NUP

kasle eta ikerlari gisa. Departamentuko zuzendari-ordea da. Aldi berean, Uriz irakasleak zuzentzen duen Etika, Filosofia eta Zientziaren Metodologia ikerketa taldeko kidea da. Gizarte-Lanaren Etika du ardatz bere ikerketak: gizarte esku hartzearen zalantza etikoen konponbiderako metodologiak, profesionalen jokabide etikoa neurtzeko tresnen sortzea eta balidazioa, protokolo etiko eta auditoria etikoak sortzea, etika batzordeetan aholkatzea eta beste.



SGAK antolatutako bilera bat. ARTXIBOA

SGAk galdera egin digu: zer da Sakana zuretako?

Sakandarrekin ibarra "berezi eta erakargarri zerk eratzen duen identifikatu" nahi dute

SAKANA

Sakanako Garapen Agentzian (SGA) hausnarketa prozesu bat egiten hasi dira eta hura osatzeko sakandarren iritziak jaso nahi dituzte. SGAKo Mikel Gaita Ansak azaldu digunez, "Sakana eskualde berezi eta erakargarri bat zerk eratzen duen identifikatzeko eta gure eskualdea etorkizunean nolakoa izatea nahi dugun ezagutzeko" bideratu dute hausnarketa prozesua. Horrekin guztiarekin, "Sakanan ditugun aukera eta sendotasunak adieraziko dituen marka irudi bat osatuko dugu".

Horregatik, "Sakanako biztanle eta langile guztiei" galdera bati erantzuteko eskatu digute: Zer da Sakana zuretako? Erantzuna errazteko beste hiru galdera proposatu dituzte: Nola ikusten duzu Sakana orain eta etorkizunean? Nola uste duzu ikusten dutela Sakana kanpoan? Sakanako zerekin identifikatuko zinateke? Audio, bideo eta idatziz erantzun daiteke. E-postaz: info@sakanagaratzen.com helbidean. Facebook-en Sakana Garapen Agentzia profilaren bidez. Twitterren @sakanagaratzen profilera txioa bidaliz. Eta, azkenik, whatsapp aplikazioa erabiliz mezua 674 146 472 telefonora bidaliz.

Beriainerako bidea homologatu du udalak

Lehendik ezaguna zen eta Km Bertikala probak ezagunagoa egin duen Beriainerako bidea udalak ibilbide labur gisa prestatu du. Horretarako, behar bezala seinaleztatu eta homologatu du. Europako diru-laguntzarekin aurre egin dio aurrekontuari

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakildik Beriain gaineko ermitarainoko bidea ibilbide labur moduan seinaleztatu eta homologatu du udalak. Mendizale asko erakartzen zituen lehendik ibilbideak eta, orain, Km Bertikalaren mendi-lasterketaren bederatzi edizioen ondoren, korrikalari gehiago dira Uharte Arakilera joaten direnak, proban parte hartzera, edo beste edozein egunetan hura eta beste batzuk prestatzeko.

Horregatik guztiagatik, Uharte Arakilgo Udalak bidea egoki seinaleztatzea eta homologatzea erabaki zuen, beste turismo baliabide bat izateko. Itxesiko



Korrikalariak aurtengo lasterketan. WWW.UHARTEARAKIL-BERIAIN.COM

aparkalekutik abiatzen den ibilbide zirkularrak 9,5 km-ko luzera du, 996 metroko desnibela duena. Ibilbidea osatzeko 5 ordu eta 40 minutu behar direla aurreikusten dira.

Uharte Arakilgo Udalak egiteko horretara 10.600 euro bideratu ditu. Baina % 70eko diru-laguntza izan du, Europako Feader funtsaren eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako Programaren bidez. Europako funts horren helburua da landa eremuan inbertitzea, kasu honetan natura eta ondare balioei garrantzia emateko.

Lau bide aurretik

Arakilgo Udalak turismoa sustatzeko asmoz ibilbideak atondu izan ditu aurretik ere. Hain zuzen, lau ibilbide prestatu eta seinaleztatu zituen 2002 urtean. Haietako bat Beriain gaineko ermitara eramaten zuena zen. Gainontzeko hiruak, berriz, honakoak izan ziren: Aralarko santutegira eramaten zuen antzinako bidea, meategiaren ibilbidea eta Atako ibarrean dagoen Errolanen harrira eramaten zuen ibilbidea.

SUSTATZEN DU:

PROIEKTOA ETA ZUZENDARITZA:

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:

LUARDENA S.L.
C/ REMIGIO MUGICA 2, BAJO
31005 PAMPLONA (NAVARRA)
948 174 341 / 610 577 200
www.luardena.com

FINANTZATZEN DU:

ITURMENDIKO ERDIGUNEAN
ETXEBIZITZETAKO SUSTAPENA

5 BOE

NAVI KOBERTURAREN MANTUAKO ZERBATA 31/1-0008/16

B KALIFIKAZIO ENERGETIKOAREKIN
DISEINATÚRIKO ETXEBIZITZA ESKLUSIBOAK

LORATEGIA - GARAJEA - TXOKO INDIBIDUALA

OHARRA: Lizenzia baldintzengatik alda daitezkeen landareak eta irudiak

Baldarendako 21 urteko espetxe zigor eskaria

Herriraren kontrako sarekadan atxilotu zuten 2013an lehenik eta 2015ean bigarreniz. "ETAren espetxe fronteko" kide izatea leporatzen diote, hainbat erakundeetako beste 47 pertsonekin batera.



11/2013 auzipetutako 48 euskal herritarrei babesa azaldu zieten larunbatean. UTZITAKOIA

ARBIZU

Presoen abokatuak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren birtartekari taldekoak, presoen senideen Etxerat elkarteak, presoen osasun egoeraz eta eskubideez arduratzen den Jaiki Hadikoak edo presoen giza eskubideak aldarrikatu zituen Herrira mugimendukoak. Guztira 48 euskal herritar epaituko dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalan. "ETAren espetxe frontea" osatzea leporatuta fiskaltzak guztira 590 urteko espetxe zigorra eta 117.600 euroko isuna eskatu du.

Auzipetuen artean Fran Balda arbizuarrak dago. 21 urteko espetxe zigor eskaerari aurre egin beharko dio. Herriraren kontrako sarekadan atxilotu zuten 2013ko irailaren 30ean eta lastailaren 4an askatu. Bigarreniz, 2015eko ilbeltzaren 12an atxilotu zuten eta urte hartako lastailaren 16ra arte preso egon zen. Auzipetuei 2012 eta 2014 urteen artean "terrorismo delituak" egitea leporatzen diete. ETAk jardun armatua 2011n utzi zuen.

11/2013 sumarioa

Fiskaltzarendako atxilotuak "ETAren espetxe frontea" osatzen zu-

ten eta, beraz, "erakunde terroristako kide" izatea leporatzen die. Fiskalaren arabera atxilotutakoak "Koordinazio Gunean biltzen ziren, ETAren aginduak kudeatzeko". Auzipetze autoan Elaoy Velasco epaileak aitortzen du aztertutako dokumentuetan ez dutela aurkitu ETAren eta ustezko Koordinazio Gunearen arteko lotura zuzenik eta harreman organikorik zegoela esateko moduko "inongo daturik". Hala ere, epaileak ziurtatu du auzipetuei guztiek bazekitela "Koordinazio Taldekoak (EPPKren birtartekariak) ETArekiko menpekotasun harremana zutela" eta talde horiek legez kanpoko Amnistiaren Aldeko Batzordeen eta Askatasunaren hutsunea betetzen zutela.

Hala ere, Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Salaren 2. Sekzioko epaile batek, Jose Ricardo De Pradak boto partikularra kaleratu du. Euren iritziz ez dago deliturik auzipetuen jardunean, baizik eta polizien "interpretazio subjektiboak" daude akusazioen oinarrian. Epailearendako epaitzekoak direnak "jarduera politiko hutsa" dira.

Babes taldea

48 auzipetuei babesa emateko hainbat pertsonak eta eragilek, ELA eta LAB sindikatuak barne, babes taldea osatu dute. Horren berri emateko eta euren iritzia plazaratzeko larunbatean agerraldia egin zuten Donostiako Aiete jauregian, auzipetutako batzuekin batera. Taldekideek bat egiten dute De Prada epailearen iritziarekin. Salatu dute Espainiak "arazo politikoen aurrean errepresioaren hautua egitea soil-soilik, soluzio politikoak bazter utzita". Babes taldekoek esan dutenez, "arduraten gaitu halako makrosumariorik Euskal Herriko bizitza sozial eta politikoan izan dezaketen eraginak". Epaituko dituzten 48ak "bakearen alde" modu "publiko eta transbertsalean" lan egin dutela gaineratu dute.

Babes taldea osatzen dutenek kezka hartu dituzte akusazioa eta zigor eskaerak, "larriak" direlako. Horregatik, herritarrei, eragile politiko, sindikal eta instituzionaleri salaketa dinami-kekin bat egiteko deia egin die, "desberdintasun ideologikoen gainetik eta nork bere ahalegin esparrutik".



Iñigo Aritzako ikasle talde bat. UTZITAKOIA

Iñigo Aritza ikastolan aniztasunari erantzuna emanez

Trantsizio gelari Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza 2 unitatea segitu dio, derrigorrezko hezkuntza osoa hartuz

SAKANA

Aniztasunaren lanketan bidea egina du Iñigo Aritza ikastolak. Zeuzkaten hezkuntza premia berezien beharrei erantzuna modu egokian emateko trantsizio gela izatea lortu zuten 2009an. Sakanan erreferentia bihurtu zen. Ikastolako ikasleak hartzeaz aparte, beste ikastetxeetakoak ere hartzen ditu.

Trantsizio gelan aritu diren Lehen Hezkuntzako ikasleei erantzun egokiena eman nahian, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza 2 unitatea (DOH2) sortu da ikastolan. Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroarekin eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean aritu dira. DOH2 unitatea lortzen lehena izan da.

Segida

Sortutako gela berria Lehen Hezkuntzako trantsizio gelako

egituraren eredu jarraitzen du baina tailerrek eta proiektuek garrantzi gehiago hartu dute. Une honetan baratzea eta edizio tailerrak egiten ari dira. Lehenengo tailerrarekin gela barruko zein kanpoko lore-ontziak kudeatzen ari dira. Bi geletako ikasleek euren erreferentzia gelan ere, adineko ikaskideekin hainbat saio izaten dituzte: teknologia, plastika edota soin heziketa. Gainera, ikastolako jarduerak orokorretan parte hartzen dute.

Ikastolatik azaldu dutenez, "inklusioari begira, aurrerapauso handia da unitate horren lorpenak hezkuntza komunitate osoarendako. Iñigo Aritza Ikastolak bere hezkuntza eskaintza zabaldu eta trantsizio gelako zein eskualdeko ikasle eta familiei derrigorrezko hezkuntza osoa ikastolan bertan egiteko aukera ematen die".

Udalak ikastetxeei zuzendutako laguntza deialdia egin du

Altsasuko Udalak herriko ikastetxeei zuzendutako diru-laguntza deialdia herenegun onartu zuen. Altsasuko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako edota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko, itunpeko edota diruz lagundutako hiru kontzeptuengatik jaso dezakete diru-laguntza. Batetik, hezkuntza proiektu be-

rritzaileak martxan jartzen laguntzeko 33.000 euro bideratuko ditu. Bestetik, irakaskuntzako materialak hobetzeko diru poltsa 5.000 eurokoa izanen da. Eta, azkenik, eskolaz kanpoko jarduerak osagarrietara bideratutako dirua 10.000 eurokoa da.

Aurten egindakoak lagunduko ditu Altsasuko Udalak. Ikasturte honetakoa izan daiteke edo pasa den ikasturtekoa. Ikastetxeak euren eskabideak aurkezteko epea 2017ko abenduaren 11an despiditza da.

Herria merkataritza biziaren lekuko

Merkataritzaren II. Festa ospatuko da Altsasuko bost kaletan eta hainbat establezimendutan. Gaur, 17:30etik aurrera herrian barna ibiltzen denak "establezimenduek hemen jarraitzen dugula" ikusiko du.

ALTSASU

Altsasuko merkataritzako 46 establezimenduk bat egin dute gaurko festarekin. Altsasuko Merkataritzaren II. Festarekin dendari eta establezimenduetako jabeek "eguneroko erosketak denda txikietan egiten dituzten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu" Elena Aldasororen hitzak dira, bera Altsasuko Dendarien Elkarteke lehendakaria da. "Hemen gaude esateko beste modu bat da. Herriari ekarpena egiten diogu. Gaur jai eguna izanen da, baina urtean zehar beste gauza batzuk mugitzen ditugu".

Joan den urteko ospakizuna kale animazioan oinarritu bazen, aurten establezimenduek beraiek hartu dute ardura. "Ideia hau aspaldi genuen buruan. Baina lan handia da dena koordinatzea. Busti gara eta denda bakoitzak berearekin lotutako zerbaiteko edo bezeroa eskertzeko, kaleak alaitzeko, herria bizirik erakusteko ahal dena egiten dugu". Aldasororen hitzetan, establezimendu batzuk elkarrekin antolatuta dira giro hori sortzeko, beste batzuk bakarka ariko dira.

Elkarteak dituen kideak baino establezimendu gehiagok parte hartuko dute gaurko festan. Aldasorok azaldu digunez, "aurre-



2016ko merkataritza festaren irudia. ARTXIBOA

ko kanpainan bezala, oraingoan ere proposamena zabaldu zaie. Elkarrekin kartelak eta logistika bere gain hartu du eta establezimendu bakoitzak, nahiaren arabera, festari ekarpen handiagoa edo txikiagoa egiten dio". Aldasororen hitzetan, "elkartean ez dauden denda askok parte hartu nahi dute eta euren bezeroak eskertu nahi dituzte. Uste dugu horrela bat egiten dugula".

ADEK antolatuta du ospakizuna, Nafarroako Gobernuaren, Altsasuko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzaz. Jakina,

establezimenduak zabalik egonen dira eta haietan erosketak egiteko aukera izanen da. Horregatik, gaur "kalera atera eta denez disfrutatzea" deitu dute antolatzaileek.

Intxostia zeharbideko jai

19:15-19:45 Kale horretako dozena dende dastatzea prestatu dute. Mahaiak kalean jarri eta mokaduak dastatzeko aukera izanen da. Gainera, dende euren lokaletatik musika jarriko dute eta euren fatxadak apainduko dituzte. Honakoak dira

parte hartuko dutenak: Sare oinetakoak, Bengoetxea oinetakoak, Imaz ileapaindegia eta estetika, Cristina fruta-denda, Intxostia kirolak, Juli artileak, Ekin boutique, Bengoetxea margoak, Lezea, Sakana optika eta Antonio Pascual.

Frontoiko zeharbideko jai

Arratsalde, kaleko sei dendean antolatuta dute ospakizuna: Cortina Stor-Izara, JA Galartza harategia, Ron Sheng bazarra, Katuka, Frontoiko taberna eta Mari Nati fruta-denda. Azken horrengandik gertuen dagoen bide publikoan dastatze gozo eta gaziak emanen dira. Gainera, dende euren lokaletatik musika jarriko dute eta euren fatxadak apainduko dituzte.

Zelai kaleko jai

17:30-20:00 Bost establezimenduk bat egin dute antolakuntzarekin: JJ Aldasoro harategia, Zelai kafetegia, Zelai bideokluba, Gixane estetika eta Scooby. Bosten artean dastatze gozoak eta gaziak eskainiko dituen mahai bat jarriko dute, esaterako, txokolate iturria edo txorizo eta ardo dastatzea.

Isidoro Melero kalea

18:30-19:15 ML Moda arropa dende moda desfilea antolatuta dute Lorea lore-denda eta Gure tabernaren laguntzaz. Jantziak erakutsiko dituzten modeloak emakumezkoendako ML Moda dendetatik aterako dira eta alfombra urdinean ibiliko dira. Marta Olaz (Miss Nafarroa 2016) eta Rafaela Candida (Miss Tourism Spain 2016) ariko dira desfileatzen. Irantzu Gonzalezen dantza eskolak erakustaldia eskainiko du. Bestalde, Gure tabernak bertaratutakoen artean cava,

frizzantea eta hostopil aperitiboa banatuko du. Musika Txen dj-ren ardura izanen da.

San Juan kalea

Lau denda elkartuta dira festa antolatzeko: Marigorri lenteria, Zat Zure animalien txokoa, Lasa kirolak eta Benigno ile-apaindegia. Guztien artean musika-ekin girotutako eta haurrendako den auzatea prestatu dute. Gainera, 18:30etik 20:30era, Lasa kirolak dendak giza-erakusleio bat aurkeztuko du.

Eta gehiago

Beste hamazazpi establezimenduk nork bere eskaintza egiten die bezeroei. Honako establezimenduek bat egin dute gaurko ospakizunarekin: Tu Tienda Especial, Arkatz liburu-denda, Txikitxo arropa-denda, Luresu optika, Luis Redin farmazia, Joselen Moda, Larka arropa-denda, Asensio Moda, Mari Carmen, Norte erloju-denda, Marian Navarro ile-apaindegia, Urtzi taberna, Akeita kafetegia, Kiki argazki-denda, Gertu Sakana burdindegia eta Lorea lore-denda. Haietatik pasatzen denak denetarik opatuko du: hainbat produkturen dastatzeak, bateko eta besteko tailerrak, photocall edo argazki saio dibertigarriak, modeloek osatutako giza erakusleioak, irrintzi lehiaketa, makillaje laginen frogak, buru-azaleko animalien diagnostia, barbakoa edo txokolate-jana.

"HEMEN GAUDE HERRIARI EKARPEN EGITEKO. GAU JAI BAT IZANEN DA"

Arbizu
Embutidos y patés

Tradizioaren zaporea

www.embutidosarbizu.es

info@embutidosarbizu.com
T. 948 460 628

Ogiaren artisaauk
PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Herrilanaren ideiarekin Errigora garaia iritsi da

Gaurtik azaroaren 14ra arte ohiko tokietan eska daitezke Nafarroako hegoaldeko produktuekin osatutako kutxak. Errigorak hegoaldeko euskalgintzari eta tokiko ekoizleei bultzada eman nahi die

SAKANA

Zubigintza leloa hartu du Errigorak kanpaina berrirako. Errigora ekimenean hainbat helburuk bat egiten dute: Nafarroa hegoaldean euskarak tresna estrategiko berriak gauzatzeari; merkaturatze bide berriak gauzatzeari; ekoizpen-ekoizle berriak finkatzeari; lurralde eta eremuen arteko harremanak trinkotzeari... Hori guztia egiteko eta ametsak errealitate bihurtzeko zubi berriak behar direla diote Errigorakoek eta kanpaina berri honekin bere ekarpena egin nahi dute.

Horretarako, zubigintza ere baden herri-lanari, auzolanari



Errigorako saskiak eskatzeko kanpaina atzo hasi zen. ERRIGORA

ekitera deitu dute Errigoratik. Udazkenean egiten duten Euskarari puzka kanpainarako 25 ekoizle batu zaizkie. Haien produktuekin beteko dituzte saski beltzak (Errigorako kutxa klasikoak) eta txuriak (berrikuntzak dituenak). Joan den urteko kanpainaren bidez Nafarroa hegoaldeko produktuz betetako 14.000 saski saldu ziren eta ahalegin horrek Erriberako euskararen normalizaziorako 175.000 euroko hauspoa izan zen. Edo, bestela esanda, Nafarroa hegoaldeko euskaltzaleendako erakusle-herria eta indarberritzea izan zen. Eta Lodosa, Tuter eta Vianako ikastolen biziraupenerako, Erriberako Aek indartzeko eta D ereduko lerroak babesteko eta zabaltzeko dinamikak biderkatzeko balio izan zuen. Hala ere, Errigorago joateko amets berriak, zubiak marrazten hasi dira euskararentzako ere.

Udaberriean Eskutik Eskura kanpainaren bidez, ekoizleen eskuetatik kontsumitzaileenera 85.000 litro olio eta 208.000 konterba ontzipasa ziren. Bitartean zubi berriak sortzen segitu nahi dute: Nafarroako hegoaldeko

euskaltzaleen artean; ekoizle, kontsumitzaile, kontsumo-talde, dendari, jantoki eta abarren artean; nekazari eta elaboratzaileen artean; herria egin eta eraldatzen ari diren eragileen artean.

Errigora egutegia

Azaroaren 14ra

- Eskerak egiteko epea.

Azaroaren 2,3 eta 4an

- Auzolana Abiltasen.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra

- Saskien banaketa.

Abenduaren 4tik 14ra

- Ordainketak.



Nekazaritza Politika Bateratutik 948.890 euro

Ibarreko 192 eskaera txosten onartuta, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak aurtengo kanpainako ordainketako lehen zatia, % 70, ordaintzen hasi zen joan zen astean.

SAKANA

Nekazaritza Politika Bateratuko kanpainako lehen ordainketak 10.465 onuradun ditu Nafarroan. Haien foru administrazioetik 52.890.182 euro jasoko dituzte egun hauetan. Hau da, Nafarroako Gobernuak aurtengo kanpainari dagokien laguntzaren % 70 pagatuko du. Diru-laguntza horren helburua da "2018ko kanpainako lanekin hasterakoan sektoreak likidezia izan dezala". Sakanatik Nekazaritza Politika Bateratura aurkeztutako 192 txosten onartu dira eta haien jabeek, guztira, 948.890,33 euro jasoko dituzte, Nafarroako laguntzen % 1,79.

Nekazaritza Politika Bateratuko ordainketak egin ahal izateko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Europako Batasunak ezarritako baldintzak bete behar ditu. Gastuen aurreratzeari dagokionean gehiena % 70 da eta hala egin du departamentuak. Horretarako, eguraldi txarrak sektorean sortutako finantza zailtasunak eta nekazari profesionalen sortu dizkien diruzaintzako arazoak argudiatu ditu. Jakina, hartzaileek dagozkien baldintzak eta kontrol administratiboa bete behar dituzte. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Ad-



ministratioiko Departamentutik jakinarazi dutenez, aurrerapen modura beste diru-laguntza batzuk ordainduko ditu bai lastailan baita azaroan ere. Laguntza horiek aurreneko ordainketa honetan sartu ez diren espedienteendako izanen dira, baita azalerari eta abeltzaintzari lotutakoak ere.

Nekazaritza Politika Bateratuko dirua


Udala	Txostenak	Dirua
Altsasu	15	29.435,54
Arakil	37	329.988,21
Arbizu	9	23.254,47
Arruazu	3	2.933,28
Bakaiku	4	19.828,86
Ergoiena	15	54.074,06
Etxarri Aranatz	30	145.046,91
Irañeta	2	46.168,40
Irurtzun	14	39.581,47
Iturmendi	4	7.694,03
Lakuntza	12	59.344,09
Olatzagutia	10	22.305,48
Uharte Arakil	22	95.350,12
Urdiain	13	32.759,51
Ziordia	2	41.125,90
Sakana	192	948.890,33

**ZURE
NEGOZIOA
HEMEN**


Sakanako
gida
2018

**AZKEN
EGUNAK
GORDE ZURE LEKUA**

NPBrako deklaraturako azalerak Sakanan



NPBrako deklaraturako azalerak herrika



Herria	Garia	Garagarra	Oloa	Artoa	Baba	Alubia	Sorgoa	Zalkea	Zalke-Olo nahasketa	Patata	Ekilorea	Kalabaza	Egurretarako azalerak	Beste baso eremuak	Beste erabilerak*	Txipuak	Baratza	Sagarrendoa	Gereziondoa	Intxaurondoa	Mahatsondoa	Beste fruta arbolak	Olibondoak	Lugorri	Bazkarako**	Gurtira	Gurtira %	
Arakil	139,65	86,03	70,21	278,06	1,28	0	0	5,44	0	0,23	0	0	0,59	201,15	0,05	1,45	0	0	0	0	0	0	0	0	10,34	1251,28	2.045,76	30,57
Irurtzun	0	0	0	0	0	0	0	1,33	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	63,55	64,88	0,97	
Irañeta	10,23	5,37	0	42,13	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2,02	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	8,34	143,37	211,46	3,16
Uharte A.	4,53	5,43	6,55	39,84	0	0	0	0,65	0	0	0	0	0,63	9,49	0,13	0	0,83	1,08	0	0	0	0	0	0	829,99	899,15	13,44	
Arruazu	1,88	1,81	0	34,01	0,91	0,13	0	0	0	0,01	0,13	0	0,86	0,46	1,18	0	0	0	0	0	0	0	0	1,84	116,14	159,36	2,38	
Lakuntza	5,8	1,42	1,83	14	0	0	0	0	0	0	0	0	0,23	0	0	0,05	0	0	0	0	0	0	0	0,12	168,98	192,43	2,88	
Arbizu	11,51	4,76	0	10,97	3,28	0,17	0	0	0	0	0	0	5,46	0,13	0	0,33	0,2	0	0	0	0	0,41	0	0,31	228,61	266,14	3,98	
Ergoiena	17,99	0	19,7	0	2,67	0	0	0	1,1	0,06	0	0	0,77	13,52	1,93	0	0,12	0	0,12	0	0	0,05	0	1,3	854,43	913,76	13,65	
Etxarri A.	0	0	0	65,43	0	0	0,74	0	2,49	0	0	0	3,03	0,81	0	0,1	0	0	0	0	0,77	0,99	0,84	3,12	523,38	601,70	8,99	
Bakaiku	1,79	0,45	0,57	5,69	3,15	0	0	0	0	0	0	0	0,25	0,01	0	0,22	0	0	0	0	0	0	0	0	138,16	150,29	2,25	
Iturmendi	5,68	2,77	1,5	5,44	2,53	0	0	0	0	0	0	0	0,14	0,33	0,07	0,08	0,08	0	0	0	0	0	0	0,41	142,99	162,02	2,42	
Urdiain	13,31	14,9	25,75	4,16	1,08	0,29	0	0	0	0	0	0	1,67	0,04	0	0,02	0	0	0	0,23	0	0,29	0	1,52	246,73	309,99	4,63	
Altsasu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	9,95	0,21	0	0,09	0	0	0	0	0	0,15	0	0	257,34	267,74	4,00	
Olatzi	0	0	0	0,57	0	0,07	0	0	0	0	0	0	0,29	17,88	0	0	0,29	0,87	0,14	0	0	0,56	0	0	202,34	223,01	3,33	
Ziordia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,13	0,1	0,07	0	0	0,19	0	0	0	0	1,05	0	223,24	224,78	3,36	
Sakana	212,37	122,94	126,11	500,3	14,9	0,66	0,74	7,42	3,59	0,3	0	0,13	2,55	265,94	3,91	2,71	2,13	2,34	0,26	0,23	0,77	2,45	1,89	27,3	5390,53	6.692,47	100,00	
Azaler. %	3,17	1,84	1,88	7,48	0,22	0,01	0,01	0,11	0,05	0	0	0	0,04	3,97	0,06	0,04	0,03	0,03	0,00	0,00	0,01	0,04	0,03	0,41	80,55	100,00		

*Beste baso erabilerak. Ez nekazaritzarako ezta basorako. **Alpapa, larre iraukorrak, zuhaixkadun larreak, zuhaitzdun larreak, espezie pratenseen sail mistoak, raygrasa.

Oharra: azaleraren 0,2aino iristen ez diren ak ez dira taulan agertzen.



Arto soroa Sakanan. ARTXIBOA

NPBko 111 hektarera gehiago deklaratu dira

Europako Nekazaritza Politika Bateratura (NPB) 6.692,47 hektarea deklaratu dituzte Sakanako abeltzainek eta nekazariak. Aitortutako azaleraren erdia hiru udalerritan dago: % 30,57 Arakilen, % 13,65 Ergoienan eta % 13,44 Uharte Arakilen.

SAKANA

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak emandako datuen arabera, ibarrean gehien deklaratu dena abereendako bazkarako ereindakoak izan dira. Europako Nekazaritza Politika Bateratura Sakanan deklaraturakoaren % 80,55 da, joan den urtean baino 1,2 puntu gehiago. Abereen bazkarako 5.390,53 hektariek alpapa, larre iraunkorrak, zuhaixkadun eta zuhaitzdun larreak, espezie pratensen sail mistoak eta raygrasa dira.

NPBra aitortutako hurrengo azalera handiena artoarena da, % 7,48; 2016an baino 0,12 puntu gehiago. Azalera tamainan hirugarrena laboreak dira. Garia, garagarra eta olo soroak NPBra aitortutako azaleraren % 6,8 dira, 2016arekin alderatuta 0,06 gutxiago. Aitortutako artean nabarmentzen den beste azalera beste baso eremu gisa izenekoa da, % 3,97 hartzen duena; joan den urtean baino 0,52 gutxiago.

Europako laguntzetarako Sakanan aitortutako gainontzeko azalera tamaina txikikoak dira. 25 hektareako kopurua gainditzen duten bakarria lugorri utzitako eremuak dira, 27,3 hektarea (joan den urtean baino 4,09 gehiago). 5 hektarea gainditzen duen kultibo bakarria zalkearena, 7,42rekin (23,34 gutxiago). Aitortutako artean eta 2 hektarea baino gehiago dituztenak zazpi dira: Beste erabilera batzuetarako, ez nekazaritzarako ez basorako 3,91 hektarea daude (5,2 gutxiago); zalke eta olo nahasketak 3,59 hektarea; txipuak 2,71 (2106ko kopuru bera); egurretarako azalera 2,55 hektarea dira (kopuru bera); beste fruta arboreak 2,45 hektarea (0,04 gutxiago);

AITORTUTAKOAREN % 80,55 ABEREENDAKO BAZKARAKO EREINDAKOA DA

sagarrondoa 2,34 hektarea (0,21 gutxiago) eta baratza 2,3 (0,02 gutxiago). Aitortutako olibondo azalera 0,34 hektarea handitu da, 1,89ra iritsiz; intxaurrondoa baino 8,21 aldiz gehiago.

Bazka-laboreak

Sakanan aitortutako azalera hamarretatik zortzi abereek jateko da. 5.390,53 horietatik guztietatik % 82,79 bost urte edo gehiago dituzten larre iraunkorrak dira (4.462,46 h). NPBra aitortutako % 7,25 raygras belarra da (390,66 h). Bost urte baino gutxiago dituzten larreak deklaraturakoaren % 3,1 da. Zuhaiak dituzten larreak, berriz, % 2,64 dira (142,44 h). Azalera tamainari erreparatzen segituz, hurrengo espezie pratenseen sail mistoak dira % 1,57rekin (84,72 h). Bost urte edo gehiagoko larreak % 1,34 dira (72,26 h). Zuhaitzadun larreak aitortutakoaren % 0,66 dira (35,46 h) eta, azkenik, alpapa % 65 da (34,94 h).

Domu Saindu, ez daudenak zaindu

SAKANA

Urtean behin, Sakanako hilerriek bizia hartzen dute. Gugandik alde egin dutenak gertuago sentitzeko egun handia da.

Urtean zehar senide eta lagunak gogoan izaten dira baina azaroaren lean indarra hartzen duen eguna izaten da.

Hilerriak lore eta landare mota ezberdinekin jazten dira eta eskaintza zabal horren lekuko dira gure herrietako lore-dendak. Gertuko zerbitzua, atsegina, profesionala eta egun hauetarako ordutegi malgukin lanerako prest dagoena. Azaroaren 1era arteko epea duzu enkarguak egin eta zure erosketak kudeatzeko.

Ordutegia:
Azaroaren 1era arte 8:00etatik 20:00etara
Azaroak 1 eguerdira arte
948 564 260
610 098 595
13 UDA BERRI LORE DENDA Altsasu
Garzia Ximenez kalea 31

izarte Isasia Industrialdea (negotziaz) Altsasu
Enkarguak: 670 063 093
jardineria.izarte@gmail.com
Bertan ekoiztutako eguzkiloreekin zentroak egiten ditugu. Lore bizia eta moztua Zentru eta konposizioen erakusketak zabalak.
Urriak 27-Azaroak 1
9:00-20:00

Domu Saindua
Zure enkarguak egin Altsasu edo Etxarri Aranazko dendetan
lorea
lore eta belardenda
www.floristerialorea.net
948 46 74 26 Altsasu
948 46 19 60 Etxarri Aranatz
685 72 21 12

Lizarra aldea ezagutzeko irteera antolatu du Arakilgo Udalak

Larunbaterako Metautenengo trufaren museora, upategi batera eta Lizarra bisitatzera joanen dira

ARAKIL

Arakilgo Udalaren Kultura Zerbitzuaren kultur agendako hurrengo hitzordua biharko dago jarria. Gastronomia eta kultura uztartzen dituen irteera egingen dute Lizarra aldera. 34 pertsonak eman dute izena. 08:30ean abiatuko dira Arakildik.

Bidaiari arakildarren aurreneko geldialdia Metautenen egingen dute. Han, 10:00etan, trufa museora bisita egingen dute. Bollerren inguruko guztia ezagutzeko aukera emanen die museoak. Eta, gainera, handik

atera gabe txakurren trufa bilketaren heziketaren lekuko izanen dira. Haien laguntzaz bilatzen baitituzte lurpeko fruitu horiek. Trufak dastatu gabe ezin joan, ordea.

Handik Iratxe upategira joanen dira. Uzta despeditu berritan, ardo nola egiten den ikasiko dute. Ardo dastatzea egiteko aukera izanen dute arakildarrek. Bazkaldu ondoren, 16:45ean, Lizarrako historia ingurunean barnako bisita gidatua izanen da. Hura bukatzean, 18:00etan, Arakilera bueltatuko dira.



Mendizale arakildarrak Berastegiko ermitan. ARAKILKULTURA

Joan den larunbatean, berriz, historiaz beteriko 10. mendi martxa egin zuten 30 bat arakildarrek, eguraldiari aurre egin da. Hiriberrin hasi eta bukatu zen ibilbidean Berastegiko ermitan gelditu ziren hango des-

populatuaren berri jasotzeko. Eta gauza bera Agirin. Desagertutako bi herrien inguruko azalpenak Jokin Lanz historialariak eman zien ibiltariei. Bidea despedituta Txitera elkartean bazkaldu zuten.

Euskal Festa 2019 urtera arte agurtu dute uhartearrek

Larunbatean ospatu zen. Dianekin hasi eta musikarekin despeditu zen, 111 pertsona bazkaltzera elkartuta

UHARTE ARAKIL

Hirugarren urtez ospatu zen Euskal Festa. Uharteen Guk Gureak elkarteak antolatu zuen larunbateko ospakizuna. Bi urtean behin ospatzen den festan aurtengoan euskal kulturaren alde, euskal ikurren alde eta euskararen alde lanean ari direnak omendu zituzten. Elkarteko kide Gaizka Uhartek omenaldian hitza hartu zuen eta Joseba Sarrionaindiaren olerki batean oinarrituta adierazi zuen baietz, "imajinatzen dugu etorkizuneko portua".

Bide horretarako "txalupa herriarrez eta aberastu dezagun inguruan dugun kultura aniztasunaz" betetzera deitu zuen. Eta dei egin zuen: "guztion artean jarrai dezagun gure herrian euskal kultura eta nortasuna eraikitzen. Herriko dantza taldean, herriko konpartsan, aizkoran edota herrigintzan". Uharteen Guk Gureak elkarteko kideak esan zuenez, "konbentzitututa gaude gai izanen garela etorkizuneko portu hori guztion artean marraztu eta erabakitzeko".



Uhartearrak giro euskaldunaz gozaten. ARTXIBOA

Uharteen Guk Gureak elkarteak antolatutako egitaraua dianekin hasi zen. Ondorengo kalejira alaiak aipatutako omenaldiari segida eman zion. Dantzariak plazan aritu ziren, Gorriri aita eta semearen arteko

aizkora apustuak jendea plazaera erakarri zuen. Han egin zen herri bazkarian 111 pertsona elkartu ziren. Haurrendako pailazo emanaldiaren ondoren musikarendako txanda izan zen, gauerdia arte.

Oinezeko lekukoa hemen

Lesakako Tantirumairu ikastolatik Iñigo Aritza ikastolarako bidea egin zuen Nafarroa Oinezeko lekukoak larunbatean. Mendirik mendi, basoz baso etorri ere. Bi ikastolek antolatutako lekuko aldaketan makina bat boluntarioren bizkarrean ekarri zuten lekukoa, motxilan sartuta, lasterka. Altsasun ikasleek lekukoa plazako ekitaldira eramane zuten.



GUAIXE

La Encinakoak beste etxeekin

Joan den ostegunean hasi eta igandean despeditu zen Nafarroako Etxe Erregionalen Federazioak antolatutako 29. kultur astea, aurten Valentziako erki-degoari eskainia zegoena. Iruñean izan ziren ospakizunak eta haieran La Encina kultur elkarte altsasuarreko kideek parte hartu zuten. Udalak eta Gobernuak harrera egin zieten.



NAFARROAKO GOBERNUA



Gazteek festa giroan. IAGA

Gazte Eguna ospatuko da, IAGAk antolatuta

Gaur afaria izanen da eta bihar, eguerditik aurrera, ospakizunerako egitaraua prest dago

IRURTZUN

Irurtzongo eta Arakilgo Gazte asanbladak laugarren gazte eguna antolatu dute aurten. Irurtzun, Arakil eta inguruko herrietako gazteen topaleku bihurtuko da, atzera ere, Irurtzun. Gazteek euren antolatutako festaz gozatzeko gonbidapena luzatu dute.

Prestatutako egitaraua

Ostirala 27

- **21:30** Afaria, Barazki gunean.

Larunbata 28

- **12:30** Txupinazoa eta gaita poteoa, Barazki gunean.
- **14:00** Bazkaria, Barazki gunean. Ondoren, bingo musikatua izanen da.
- **18:30** Elektrotxufila. Ondoren, txapel jaurtiketa eta #AltsasukoakAske argazkia.
- **23:00** Kontzertuak, frontoian: Zaunka, Sutagar, Tximeleta eta Jotaxo dj.

XX. Iñigo Aritza Pilota Txapelketa aurrera

PILOTA Igandean, 16:00etan, 2. jardunaldia jokatu da Iñigo Aritza ikastolako frontoian

Aurreko asteburuan hasi zen XX. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketa. Euskal pilota sustatzeko lanean, Ricardo Lopez de Sabandok urteak daramatza ikastolan pilota eskolak ematen, eta aipatu txapelketa da pilota bulkatzeko ikastolak antolatzen duen beste ekimenetako bat.

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara bitarteko neska-mutilek parte hartzen dute txapelketan eta igandean 2. jardunaldia jokatu da ikastolako frontoian, 16:00etan. Finalak abenduaren 10ean jokatu dira, Burunda pilotalekuan.

Iñigo Aritza Txapelketako 2. jardunaldia

Igandean jokatu da 2. jardunaldia, 16:00etatik aurrera, Iñigo Aritza mendiko ikastolako pilotalekuan.

Igandeko partidak:

LH3:
Harri – loar

LH4:
Beñat – Aser
Eñaut – Aiora

LH5:
Hodei – Enaitz
Aimar – Xabier
Oier – Alaitz

LH6:
Oihan – Oier

DBH1:
Harri – Oier

DBH2:
Ander – Aritz
Olatz – Irati
Ekiñe – Amaiur

DBH3:
Aitor – Aritz


Ezkurdiaren eta Altunaren aurretiatzko finala

PILOTA B multzoan Urrutikoetxea Lau t'erdiko Txapelketako final erdietarako sailkatuta dago dagoeneko. Igandean Ezkurdiak eta Altunak jokatu dute, eta partidako irabazleak finalerdietarako txartela lortuko du. A multzoan dena airean dago

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkako azken jardunaldiak erabakiko du zein pilotari pasako den final erdietara.

B multzoan gauzak nahiko argi daude: Urrutikoetxea dagoeneko finalerdietarako sailkatua dago eta Artola, aukerarik gabe. Beraz, gaur biek Balmasedan jokatu duten partidak ez du ezer erabakiko. Erabakiko duena igandeko Tolosako partida izanen da: Joseba Ezkurdiak eta Jokin Altunak jokatu duten partidako irabazlea sailkatuko baita finalerdietara.

Partida oso gogorra aurreikusten da, bi pilotari euren joko guztia jarriko dutelako



Ezkurdiak eta Altunak partida erabakiorra dute igandean Tolosan. ASPE

finalerdietan egoteko. Ezkurdiak bikain jokatu zuen Artolaren kontra, baina larunbatean Urrutikoetxearen kontra irregular samar ibili zen eta 22 eta 14 irabazi zion Urrutikoetxeak. Altunari antzeko zerbait gertatu zitzaion: Urrutikoetxearen kontra, gaizki ibili zen baina aurreko asteburuan Artolaren ginetik pasa zen. Hortaz, aurretiatzko finala dute jokoan biek igandean Tolosan. Atzo arratsaldean aukeratu zuten materiala.

A multzoan, aldiz, guztia erabaki gabe dago. Aimar Olaizo-

lak eta Elezkanok partida erabakiorra dute bihar Labriten. Aimarrek irabazten badu, finalerdietarako sailkatuko da; al-diz, Elezkanok hiru puntuko alde baina gehiagorekin irabazi beharko luke sailkatzeko.

Tartean, Bengoetxea VI.aren lesioa dago. Leitzakoak atzo erabaki behar zuen torneoan jarraitzen duen, haustura baitu eskuin eskuko hatz erakuslean. Jarraituz gero, igandean Victorren kontrako partida irabazi beharko luke finalerdietara sailkatzeko, bestela errioxarra sailkatuko da.



Julen Martijak Aspen jarraituko du. ASPE

PILOTA Julen Martijak beste hiru urte sinatu ditu Asperekin

Aspe enpresa eta Julen Martijak pilotaria adostasunera heldu dira eta Etxeberriko atzelariak Eibarko enpresan jarraituko du 2020 urteko urrira arte.

Martijari otsailean despeditzen zitzaion kontratua, baina Etxeberrikoa maila ona ari da erakusten eta enpresak bere ahalgina saritu nahi izan du. Bi aldeak kontentu azaldu dira hitzarmenarekin eta Martijak azaldu du "oso pozik" dagoela. "Enpresak nigan duen konfiantza eskertzekoa da. Orain, konfiantza hori eskertu nahi dut eta ahal dudana esfortzu handiena egin nahi dut, ikasi ahal izateko, eta, ahal bada, handien artean tokia egiteko".

Eibarko enpresan kontentu omen daude Etxeberriko atzelaria egiten ari den progresioarekin, eta oraindik konfirmatu ez bada ere, badirudi Julen Martijak Binakako Txapelketarako tokia izan dezakeela. Sakandarrak Barriolaren tokia hartuko luke Lau t'erdia bukatuta hasiko den txapelketan.

Iosu Bergera selekziara

PILOTA Angelun eta Miarritzen, 36 metroko frontoiko eta zesta puntako Munduko Kopa jokatzeko ari da. Espainiako selekzioak deituta, bertan dabil Irurtzun klubeko Iosu Bergera pilotari arruazuarra, Eneko Yoldirekin, Aitor Gorrotategirekin eta Igor Azpirirekin batera. Argazkian, Bergera, eskuinetik hasita bigarrena, Irurtzun klubekoekin.



Jose Luis Beraza seigarrena Leire Trailean

MENDI LASTERKETAK Uharte Arakilgoa bigarren beterranoa izan zen Leiren jokatuak 21 km-ko lasterketan. Bestalde, Araia-Aratz Km Bertikalean Erkuden San Martin etxarriarra hirugarrena sailkatu zen

Larunbatean Juan Migeliz Leire Trail lasterketa jokatu zen Leiren, 21 km eta 1.400 metro positiboko desnibela zuen lasterketa, mendi korrikalari askorendako denboraldiko azken proba izan zena.

302 korrikalarik hartu zuten parte eta Xabier Macias (1:56:33) eta Laura Sola (2:20:33) izan ziren probako txapeldun handiak. Maciasek eta Xabier Zarranzek lehia estua izan zuten aurrean eta, azkenean, Maciasek 13 segundo atera zizkion Zarranzi. Segundo bat beranduago sartu ziren Victor Amatriain eta Iñaki Mihura.

Emakumezkoetan, aldiz, ez zen aparteko lehiarik izan, Laura Solak 4 minutu atera baitzikion aurreko urtean proba irabazi zuen Mainer Frailerri.

Sakandarren artean Jose Luis Beraza izan zen lehena. Uharte arakildarra seigarrena sartu zen, probako bigarren beterranoa (2:04:32).



Jose Luis Beraza podiumera igo zen, bigarren beterranoa izan baitzen. UTZITAKOIA

San Martin hirugarren emakumea Araian

Araia Altzania Mendi Klubak, Asparrenako Udalaren laguntzarekin. Araia-Aratz Km Bertikala antolatu zuen igandean, 4, 3 kilometroko proba. 85 ko-

rikalari aritu ziren eta Markel Urigoitia (12:27) eta Izaskun Zubizarreta (12:34:14) izan ziren azkarrenak. Aipatzekoa da Erkuden San Martin etxarriarra hirugarren emakumea izan zela (12:38).

Osasuna Magnak eta Aspil Vidalek gaur derbia jokoan

ARETO FUTBOLA Anaitasunak hartuko du bi talde nafarren arteko derbia, gaur, 21:15ean (Eurosport 2)

Osasuna Magna taldearen bola-da onak ez du etenik. Asteburuan, Lehen Mailako Areta Futbol Ligako 6. jardunaldian Cartagenari 2 eta 6 irabazi zion Osasuna Magnak. Bynho (2), Eserverri (2), Rafa Usin eta Araça izan ziren golegileak. Imanol Arregi entrenatzailea bere jokalariek egindako jokoaengatik oso kontentu zegoen. "Garaipenarekin pozik nago, ez baita erraza izan. 1 eta 3 arte kosta egin zaigu, Cartagena arerio borrokalaria baita. Oso kontentu nago taldea egiten ari den lanarekin" na-

barmendu zuen Irurtzungo entrenatzaileak.

Osasuna Magna sailkapenean bigarrena, liderrarekin berdindua Lehen Mailako sailkapen orokorrean Movistar Inter da liderra eta Osasuna Magna bigarrena da, biak 16 punturekin. Bikaina, talde berdearen denboraldiaren hasiera.

Gaur, ostiralean, derbia dago jokoan, Osasuna Magnak 7 punturekin sailkapenean bederatzigarrena den Aspil Vidal Ribera de Navarra taldea hartuko bai-

tu etxean, Anaitasuna pabilioian, 21:15ean (Eurosport 2). Bi taldeen arteko partidari giro berezia egoten da, jatorra, eta halakoa espero da gaurko. Imanol Arregiren taldeak lidergoa lortu nahi du eta Erriberakoek puntuak lortu. Ea derbiak zer uzten duen.

Errege Kopan aurrera

Asteazken gauean, Palentzian, Errege Kopako final zortzirentan lehiatu ziren Osasuna Magna eta Guardo. Aspil Vidal bidean uztetik zetorren Guardo, baina hasieratik Osasuna Magnak partida dominatu zuen eta Guardok ezin izan zuen sorpresarik eman. 2 eta 4 irabazi zuten berdeek, Alvaritok, Eserverrik, Bynhok eta Victorrek sartutako golei esker eta Errege Kopako final laurdenetarako sailkatu dira Imanol Arregiren mutilak.

Sakandarrak Leiren eta Araia-Aratzen

Leire Trail (21 km)

1.Xabier Macias:	1:56:33
6.Jose Luis Beraza:	2:04:32
31.Julen Lizarraga:	2:21:04
33.Joxeja Maiza:	2:21:20
64.Migel Angel Asurabarrena:	2:32:35
69.David Mutiloa:	2:34:17
160.Iñigo Aldunate:	2:56:10

Araia-Aratz Bertikala (4,3 km)

1.Markel Urigoitia:	12:27
7.Anartz Etxeberri:	12:09
24.Joseba Iza:	12:08
29.Fran Araña:	12:24
51.Joseba Urkia:	12:23
62.Erkuden San Martin:	12:38
71.Patxi Atxa:	12:41

*Oharra: Bi lasterketako sailkapenetan korrikalariak nongoak diren ez dute jarri, eta horregatik gerta daiteke sakandarren bat sailkapenean ez agertzea.

SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINEN PARTIDUAK

IGANDEAN 1. JARDUNA DANTZALEKUN

10:00	Sutegi – Mediolanum
10:00	Lagun Artea – Txartel
11:00	Etxarri Aranatz – Seguros Sayas
11:00	Aralar Mendi – Betelu

Sakanako Mankomunitateak antolatutako 2017/2018 Sakanako Futbol Topaketak aurreko asteburuan abiatu ziren. Zehazki, Kimuen Topaketak izan ziren hasi zirenak. Asteburu honetan kimuek atsedean hartuko dute eta Benjaminen Mailako Topaketak izango dira hasiko direnak, Dantzalekun.

Benjaminen mailan 9 talde lehiatuko dira: Olazitiko Sutegi, Altsasuko Mediolanum, Txartel eta Seguros Sayas, Etxarri Aranatz 1 eta Etxarri Aranatz A, Lakuntzako Lagun Artea, Uharte Arakilgo Aralar Mendi eta Betelu. Kimuen mailan, bestalde, 6 talde dabilta baina asteburuan atsedena dute.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

San Andres – Lagun Artea	2-0
San Jorge – Etxarri Aranatz	4-1

SAILKAPENA

1. Lagunak	15
12. Lagun Artea	5
16. Etxarri Aranatz	3

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:00	Lagun Artea – San Jorge
	<i>Lakuntzako Zelai Berrin</i>
16:00	Etxarri A. – Ardoi B Etxarriko San Donato zelaian

Azken jardunaldiak ez du gauza onik utzi gure taldeendako. Lakuntzarrak saiatu ziren, baina baloia ez zuen sartu nahi. Eta berdin etxarriarrak. Sailkapeneko behealdean daude gure taldeak.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Salesianos – Altsasu	0-5
----------------------	-----

SAILKAPENA

1. Lagunak B	13
3. Altsasu	12

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:30	Altsasu – Gazte Berriak
	<i>Dantzalekun</i>

Altsasuk gol festa ederra ospatu zuen. Letona, Bergara (2), Lobo eta Guisado izan ziren golegileak.

ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK

Zaldia – Bidezarra	0-1
--------------------	-----

SAILKAPENA

1. Bidezarra	12
4. Zaldia	7

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

Ordua zehaztu gabe	Unziti – Zaldia
	Liderraren kontra galdu zuen Zaldia.

EMAK. ERREGIONALA

EMAITZAK

Iruntxiki – Altsasu	1-4
---------------------	-----

SAILKAPENA

1. Berriozar	18
12. Altsasu	5

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:30	Altsasu – Betei Kozkor
	<i>Dantzalekun</i>

Asteburuan ez zen jardunaldirik jokatu. Hortaz, sailkapenean ez dago aldaketarik. Lekunberrikoen kontra ariko dira altsasuarrak igandean etxean. Betei Kozkor 15.a da, puntu bakarrekin.

Flores, Espainiako Txapelketan hirugarrena

AUTOMOBILISMOA Espainiako Mendi Txapelketako 2. kategorian hirugarrena sailkatu da lakuntzarra, denboraldi bikaina egin eta gero. Zortzi probek puntuatzen zuten eta erregulartasun handia izan du Floresek BRC B49 barketarekin

Garikoitz Flores pilotuak (BRC B49) denboraldi bikaina podium bereziarekin borobildu du, izan ere Espainiako Mendi Txapelketako 2. kategorian hirugarrena sailkatu da lakuntzarra, mehezimendu osoz.

Zortzi lasterketa

Aurten 8 igoerek puntuatzen zuten Espainiako Mendi Txapelketarako: martxoaren 10eko Esteponako Peñas Igoerak, apirilaren 22ko Ubrique Benaucáz Igoerak, maiatzaren 6ko Falperako Nazioarteko Arranpak, maiatzaren 13ko Fitora Nazioarteko Igoerak, ekainaren 10eko Guía de Isora Igoerak, ekainaren 17ko Tamaimora Igoerak, uztailaren 15eko Pujada Alp 2.500 Igoerak, irailaren 22ko La Santara Igoerak eta irailaren 30eko Ornidora Igoerak. 2. kategorian oso lehiatua egon da txapelketa eta, azkenean, Cesar Rodrigizek irabazi du (152 puntu), Jonathan Alvarez bigarrenarekin puntu-



Garikoitz Flores lakuntzarrak denboraldi ona egin du BRC B49 barketarekin.

tara berdinduta (152 puntu). Garikoitz Floresek gertutik jarraitu die, hirugarrena izan baita (115 puntu).

Espainiako Txapelketan buru belarri murgilduta, aurten Nafarroako Mendi Txapelketa alde

batera utzi du Floresek. Hala ere, laugarrena sailkatu da plaza bakarrekoen mailan, Urbasako Igoeran egindako lanari esker. Denboraldia despeditzear dagoenean, hurrengo, 2018koa buruan izango du pilotuak.



Iban Lopez de Goikoetxea igandean Urrakin. MMS

Palacios, Mendinueta eta Lopez de Goikoetxea podiumean

AUTOMOBILISMOA Igandean jokaturako Urraki Igoerak erabaki du Nafarroako Mendi Igoera Txapelketa

Igandean Urraki Igoera jokatu zen Azpeitian, Nafarroako Mendi Igoera Txapelketako baliagarria zen azken proba. Bertan Sakana Motorsport taldeko bi pilotu sakandar lehiatu ziren, Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra (Renault 5 GT Turbo) eta Mikel Mendinueta arbizuarra (Peugeot 205 Gti).

Sakandarrak ongi Urrakin

Egun guztia euripean ibili behar izan zuten pilotuek eta bidea oso irristakorra izan zuten uneoro. Uretako gurpilekin aritu behar izan zuten eta, ondorioz, Formula, barketa eta halako kotxe azkarrei 4x4 auto batek hartu zien aurrea. Horrela, Iñaki Aiertza (Mitsubishi Lancer Evo IX) izan zen azkarrena (3:38.370), berriki Urbasako Igoera irabazi zuen Joseba Iraolari (Norma NAC M20) 3 segundo aterata (3:41.448).

Iban Lopez de Goikoetxea 12.a sailkatu zen scratch edo sailkapen orokorrean (3:56.501). Bere mailan, Formula Librean, hirugarrena izan zen olaztiarra. Bestalde, Mikel Mendinueta 20.a sailkatu zen (4:15.049) eta bere mailan, 3. Klasean, laugarrena izan zen.

Nafarroako Mendi Txapelketan gure pilotuak bikain

Urraki Igoerak erabaki du Nafarroako Mendi Igoera Txapelketa. Ondoko probek puntuatu zuten: Arnedilloko Igoerak, Ibaridin Igoerak, Petillako Igoerak, Jaizkibel Igoerak, Urbasako Igoerak eta Urraki Igoerak. Pilotu sakandarrek lan ona egin dute denboraldian barna eta podium guztietan ordezkaritza izan genuen.

Monoplazen mailan Arkaitz Ordokik irabazi du Nafarroako Mendi Txapelketa (290 puntu), Pantxo Egozkueren (128 puntu) eta Iker Palacios lakuntzarraren aurretik (100 puntu). Garikoitz Flores laugarrena sailkatu da (54 puntu).

Bestalde, turismoetan Iñaki Lapuentek irabazi du Nafarroako Mendi Txapelketa (343 puntu). Mikel Mendinueta arbizuarra hirugarrena sailkatu da (201 puntu) eta Etxeberriko Garikoitz Goñi seigarrena (80 puntu). Eta, bukatzeko, Formula Libre mailan Iñaki Alegriak irabazi du (160 puntu), Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarraren aurretik (140 puntu). Iñigo Zelaia bakai-kuarra seigarrena sailkatu da (43 puntu).



MANK

Nordic Walkingean trebatzen

Sakanako Mankomunitateak ipar martxa, martxa nordikoa edo nordic walking ikastaroa antolatu zuen asteburuan Altsasun, Kaputxinoetan. Bi saio izan ziren, bata larunbatean eta bestea igandean. Saio bat Gorka García Romanek gidatu zuen eta bestea Gema Urdanitz

Etaiek, eta bakoitzak 19 ikasle trebatu zituen. Esperientzia "primerakoa" izan zela aipatu digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrickagoitiak. "Ikastaroa kirol eta jarduera osasuntsuak bulkatzeko antolatu genuen, eta guztira 38 pertsona aritu dira".

•Hastapen maila
•Maila aurreratua

•Hastapen mailari buruzko ikastaroak
•Maila aurreratuari buruzko ikastaroak

Ipar martxa • Nordic Walking
Tfn: 644 555 328 • Whatsapp
sakanonordic@gmail.com
Instrudorea 5814



Eragile desberdinetako ordezkariak hedabideen aurrean agerlaria egin zuten. GUAIXE

Sakanako Herri Lasterketa bihar Uhartan

ATLETISMOA 17:00etan kategoria txikiko probak jokatu dira eta 18:00etan lasterketa nagusia. Aldi berean, Errefuxiatuen Aldeko Martxa antolatu du Mankomunitateak. Bildutako guztiendako auzate eta pintxo pote berezia antolatu dira

Aurten 17 edizio bete ditu Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Herri Lasterketa-Burundesari Nagusiak. Astelehenean egin zuten aurkezpena, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan. Bertan izan ziren Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikari Bego Zestau, Uhartar Arakilgo kirol zinegotzi Mikel Razkin, Burundesako ordezkari Javier Fonseca, Iruñean bizi den Abdul Razak Alyusuf siriar errefuxiatua eta Sakanan urte asko daramatzan Abderrahim Khelifi marokarra. Izan ere, Kirol Zerbitzuarekin batera aurten Anitzartean Kul-

turartekotasun Zerbitzuak ere antolatu du Sakanako Herri Lasterketa eta, nobedade moduan "Ongi etorri errefuxiatuak" leloa izango du ibarreko lasterketak. Proba antolatzeke Uhartar Arakilgo Udalaren, Aralar Mendi elkartearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du Mank-ek, eta La Burundesari babesle nagusiaz gain, Coca Cola, Lacturale eta herriko hainbat babesle ditu probak.

Atletismoa sustatzea

Sakanako Herri Lasterketa Sakanan atletismoa eta bereziki krosa bulkatzeke antolatzen du Mank-ek. "Atletismoak beti indarra izan du gurean. Hor dago

Dantzaleku-Sakana taldea, proba honetan ere laguntzaile izango duguna. Etxarri Aranatzan ere iaz beste eskola bat sortu zen, lanean dagoena. Korrikalari asko ditugu gurean. Esaterako, azaroaren 12an Behobia-Donostia jokatu da eta bertan korrikalari sakandar ugari aritu dira. Eta hain zuzen ere, Behobia lasterketa prestatzeko Sakanako aukera paregabea da" azaldu zuen Amaia Gerrikagoitia. Kirol teknikariak gaineratu zuen, Sakanako Herri Lasterketaekin "gure herriak, gure kultura eta euskara bulkatu" nahi direla. "Horregatik lasterketa urtero herri ezberdin batean egiten dugu, gure herriak

Biharko egitaraua

- 15:30:** Maksim Magoa.
- 16:00:** Dorsalak jaso.
- 17:00:** Txikien lasterketak.
- 18:00:** Helduen lasterketa eta Errefuxiatuen Aldeko Martxa.
- 19:00:** Sari banaketa eta auzate berezia.
- 19:30:** Pintxo pote berezia.

erakusteko. Aurten Uhartar Arakilgo hartuko du proba" nabarmendu zuen. Burundesako Javier Fonseca azaldu zuen enpresa bertakoa dela eta Sakanan antolatzen diren halako ekimeneetan eurekin gogoratzea eskertzen dutelako, "halakoetan gure kolaborazioa ematea gustuko dugulako".

Guztiek Sakanako Herri Lasterketan eta Errefuxiatuen Aldeko Martxan parte hartzea animatu zituzten sakandarrak, "egun polita" izango delako, Sakanako atletismo festa.

Ongi etorri errefuxiatuak

Lelo hori du aurtengo Sakanako Herri Lasterketa-Burundesari Nagusiak. "Sakanan urtero antolatzen dugun herri lasterketan Nafarroan eta Sakanan dauden beste sentsibilizazio batzuk zabaltzeko aprobetxatu nahi izan dugu. Kasu honetan, errefuxiatuen eta etorkinen gaia hartu dugu aintzat eta "Ongi etorri errefuxiatuak" leloa gehitu diogu Sakanako Herri Lasterketari. Bi stand jarriko ditugu Uhartar Arakilen, bata Sakanan errefuxiatuen gaia lantzeko sortu den Sakana Harrera Haranarena eta bestea HELP-NA taldearena, Larrialdi Humanitarioerako Nafarroako Suhiltzaile Bolondresen Taldearena. Azken hauek Greziako errefuxiatu kanpamenduetan lan handia egiten dute. Horrela, errefuxiatuen errealitatea eta bizipenak zuzenean ikusi eta entzuteko auke-

ra izango dugu" adierazi zuen Mank-eko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko teknikari Bego Zestauk.

Kategoria txikietako lasterketak, 17:00etan

Sakanako Herri Lasterketako kategoria txikiko probak 17:00etan hasiko dira. Aurretik, 16:00etatik aurrera, izena-ematea egin beharko da, plazan. Haurrek dohainik izango dute parte-hartzea. Plazaren inguruetan, aurrebenjaminek 275 m, benjaminek 450 m, kimuek 750 m eta haurrek 900 m osatu beharko dituzte. Kadeteak eta jubenilak helduekin ariko dira, proba nagusian.

4 km-ko zirkuitua

Sakanako Herri Lasterketa antolatzeke Uhartar Arakilgo Aralar Mendi elkarteak eta Udalak 4 km-ko zirkuitua prestatu dute. "Herria erakusteko eta ezagutarazteke zirkuitua prestatu dugu. Plazatik aterata, Itsesi aldera joko dugu, Itsesi parkea, autokarabana gunea eta beste ikusteko. Ondoren Katanga auzo aldera jaitsiko gara eta "Camino Viejo" delakoa hartuko dugu, Katanga auzotik herrira jotzeko. Mendikoa kaletik jaitsi, herri gunean bira bat egin eta berriro plazan geundeko" azaldu du Uhartar Arakilgo zinegotzi Mikel Razkinek. Kadeteek buelta bat emango diote ibilbideari (4 km), eta gainontzekoek bi itzuli (8 km). Dutzak frontoian eta Itsesi igerilekuetan izanen dira.

Errefuxiatuen Aldeko Martxa

Proba nagusiarekin batera Errefuxiatuen Aldeko Martxa abiatuko da. Lasterketarako prestatutako zirkuituari buelta bat ematea da helburua, oinez. Eki-

LASTERKETAN ETA MARTXAN IZENA EMATEKO AUKERA IZANEN DA BIHAR UHARTE ARAKILEN

non erabili

LIBURUNDA

ALTSASU

%5eko deskontua papertegian.

13 UDABERRI LOREDENDA

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Ile tratamenduak 5 €tan.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

%10 eko deskontua fruitu tropikaletan.

men irekia da eta nahi duen orok har dezake parte, doan.

Izena ematea zabalik

Izena ematea zabalik dago, aurretik, www.kirolprobak.com web gunean, urriaren 27ko 21:00ak arte. Kadeteek, juniorrek eta haurrek ez dute ezer ordaindu beharko. Helduek aldiz, txip horia dutenek 8 euro eta alokairuzko txip zuridunek, aldiz, 9 euro. Bihar, lasterketaren egunean izena emateko aukera dago Uhartre Arakilgo plazan, 16:00etatik 17:30era (txip horidunek 10 euro eta txip zuridunek 11 euro).

Sakanako Koparako baliagarria

Biharko Uhartre Arakilgo lasterketa Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria da. Egun, emakumezkoetan Izaskun Beunza da Ko-

pako liderra eta Ginesa Lopez bigarrena, eta, gizezkoetan, Raul Audikana doa buruan, Felix Benjumearen eta Francisco Gomezen aurretik. Biharko Sakanako XVII. Herri Lasterketak eta abenduaren 8ko Barricarteren XXXVII. Oroimenezko Oinezko Lasterketak erabakiko dute Kopa.

Sariak eta zozketak

Sari ematea 19:00ak inguruan hasiko da. Sakanako Herri Lasterketako lehenengo hirurek eta lehengo hiru sakandarrek, gizezkoek eta emakumezkoek, saria izanen dute, bertako produktua. Horretaz gain, lehenengo kadeteek, jubenilek eta beteranoek, hiru mailatan, saria jasoko dute, eta Uhartre Arakilgo lehenengo korrikalariendako ere saria egongo da.

Bestalde, lasterketa eta martxa bukatzen duten partaide guztien artean, Peio Goikoetxea masajistaren masajeak zozketatuko dira, txerrikume bat (Mendinuetarategia), Mendikoa kafetegian bi pertsonarendako otordua, Itxesi jatetxean bi pertsonarendako otordua eta Ongi etorri errefuxiatuen bi kamiseta.

Magia eta auzate berezia

Zestauk gaineratu zuenez, arratsalde osoko egitaraua antolatuta nahi izan dute, adin guztietarako, eta ohiko lasterketez gain, haurrendako magia ikuskizuna antolatu dute 15:30ean, Maksim Magoarekin. "Lasterketa eta martxa bukatzerakoan, Uhartre Arakilen bildutako korrikalari eta ikusle guztiendako auzate berezia egonen da, dohainik. Ohiko bertako jakiez gain, Ab-

dulek Siriako jakiak prestatuko ditu, falafel ezagunak, garbantzu eta baba pilota antzekoak, eta jaki goxo eta dultzeak baita ere. Eta Abderrahimek Maroko aldeko jakiak ekarriko ditu, haragi brotxetak, tea eta beste. Iruditzen zaigu beraien presentzia dela modu eraginkorrena euren errealitatea eta bizipenak ezagutzeko eta aurreiritziak eta estereotipoak kentzeko" nabarmendu zuen Zestauk.

Pintxo pote berezia

Ondoren, 19:30etik aurrera, pintxo-pote berezia izanen da Mendikoa kafetegian, Motxale tabernan eta Jubilatuetan. Txartelak salgai jarriko dira, 2,50 eurotan. Lortutako etekina errefuxiatuekin lan egiten duten Sakana Harrera Harana eta HELP-NA taldeetara bideratuko da.

"Beste errealitate horiek ezagutzeko aukera dugu"

BEGO ZESTAU SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUKO TEKNIKARIA

Zergatik sartu da Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzua Kirol Zerbitzuarekin batera Sakanako Herri Lasterketa antolatzeraz?

B.Z.: Kirol zerbitzuarekin koordinazioa badugulako. Bagenekien iaz, Lakuntzan burutu zen Sakanako Herri Lasterketarekin batera Osasun Martxa antolatu zela. Aurten oinezko martxak zein gai izan zitekeen hausnartuz, Anitzartean Zerbitzutik beste errealitate batzuen inguruko sentsibilizazioa lantzen denez eta Sakanako errefuxiatuei eta migratuei ongi etorria ematen dien plataforma bat sortu denez, Sakana Harrera Harana, iruditu zitzaigun aukera polita zela Sakanako Herri Lasterketarekin antolatzen den oinezko martxa errefuxiatuen aldeko martxa izatea, "Ongi etorri errefuxiatuak" lelopean, beste errealitate horiek ezagutzeko.



GUAIXE

Egitarau osoa antolatu duzue, magia ikuskizuna tartean.

B.Z.: Arratsaldeari toke magiko bat eman nahi genion. Errealitate gordina ezagutu behar badugu ere, ilusionismo hori mantendu behar dugu, errealitatea ikuspegi magiko batetik hasiko dugu. Eta arratsaldeko tarte bat ere txikiei eskaini nahi diegulako ere antolatu dugu Maksim magoaren emanaldia.

Lasterketarekin batera martxa abiatuko da, "Ongi etorri errefuxiatuak"

lelopean. Beraiek ere parte hartuko dute?

B.Z.: Martxan zehazki ez dakit, baina Uhartre Arakilen euren presentzia izango dugu. Martxaren ondotik auzatea izanen da, eta hor errefuxiatuek parte hartuko dute. Auzate anitza izango da: betiko jakien eskaintza gain, Iruñean bizi den Abdul Razak Alyusuf errefuxiatu siriarrak jaki gazia ekarriko du, falafel, garbantzuekin eta beste osagai batzuekin egindakoa, oso goxoa, eta jaki gozoak ere. Eta Uhartre bizi den Abderrahim Khlifi marokoarrak Marokoko tea eta haragiz egindako brotxetak ekarriko ditu, guztiok dastatu ditzagun, doan. Iruditzen zaigu bide eraginkor bat dela errealitate ezberdinak aurrez aurre ezagutzeko, protagonisten eskutik, eta beraiekin unetxo bat konpartitzeko.

Eta gero pintxo pote berezia izanen da.

B.Z.: Mendikoan, Motxalen eta jubilatuetan. Jasotzen den dirua errefuxiatuekin lan egiten duten Sakana Harrera Harana eta HELP-NA suhiltzaileen elkarteak laguntzera bideratuko da. Pintxo potearekin elkartasuna adierazi nahi diegu eta hortik aterako den diru parte bat bi elkarrean artean banatuko da.

Sakandarrak bihar Uhartre Arakileren gerturatzea animatuko ditugu, ezta?

B.Z.: Bai, jakina! Hurbildu daitezela sakandar guztiak Uhartre Arakileren. Ahal duenak korrika egitera, eta ezin duenak oinezko martxa egitera, edo besterik gabe, arratsalde pasa polita egitera. Banaka, bikoteka, familia, lagun artean... guztiak izango dira ongi etorriak! Larunbat arratsaldea giro onean pasako dugu eta, bide batez, errefuxiatuen errealitatea zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu.

24 sakandar Zubiri-Iruña maratoni erdian

Igandean 788 korrikalari osatu zituzten Zubiri eta Iruña arteko 21 kilometroak. Antonio Etxeberria (1:07:08) eta Vanesa Pacha (1:20:02) izan ziren azkarrenak. 24 sakandarrek lortu zuten proba despeditea eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen lehena, sailkapen orokorrean 32.a (1:18:26).

Sakandarrak proban

- 1.A. Etxeberria (Iruña): 1:07:08
- 2.Sergio G. Eulate (Alts): 1:18:26
- 33.Javier Borrega (Alts):1:18:27
- 38.Aritz Munarriz (Etx): 1:19:38
- 48.Mikel Satrustegi (Arru): 1:20:57
- 52.Iñaki Azkona (Iruñ): 1:21:36
56. Gorka Acebes (Olaz): 1:21:49
- 81.Iban Gonzalez (Urd): 1:23:31
- 112.Gaizka L. de Zubiria (Bak): 1:25:12
- 135.Asier Estarriaga (Etx): 1:26:40
- 168.J. R. Ramirez (Alts):1:28:48
- 186.Martin Somocurcio (Alts): 1:29:29
- 187.Iñaki Paniagua (Alts): 1:29:30
- 209.Kaxi Estarriaga (Etx): 1:30:28
- 225.Carlos Mañeru (Etx): 1:31:30
- 265.Xabier Aierdi (Alts): 1:32:55
- 385.Jav. Rekalde (Iruñ): 1:39:25
- 400.Victor Isturiz (Iruñ): 1:39:49
- 460.Fernando Montero (Alts): 1:42:23
- 463.Borja Gonzalez (Alts): 1:42:25
- 473.Raul Mendoza (Zior): 1:42:36
- 482.Jorge Cambero (Alts): 1:43:12
- 497.Emilio Carabias (Alts): 1:43:57
- 549.Nicolas Fernandez (Iruñ): 1:46:29
- 630.Txema Oderiz (Etx):1:50:54

EROSKI BIDAIAK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50 €ko erosketarekin gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztiaren.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 27

ALTSASU Merkataritzaren II. Festa.
17:30etik aurrera, hainbat kaletan.

ALTSASU Sex-gunea zabalik egonen da gazte gunean.
17:30etik 20:30era, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakia-aren parean.

ALTSASU Pontxarekin ipuin eta jolas kontakizuna egingen du Jaione Urtasun ipuin kontalariak.
19:00etan lortia kultur gunean.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
19:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Zuk. Nik Guk? Gure arazoak eta jarrerak elkarren arteko harremanetan nola min egin diezaguketan argitzea. Hizlariak: Ahimsa Lara Ribera idazlea, coach pertsonala eta giza harremanetan aditua eta Olga Martinez de Lagran psikologian doktoratua.
19:30ean, kultur etxean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Barry Seal filmaren

emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Javier Merinok Dialogos con mi barriga bakarriketa eskainiko du.
23:00etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 28

ZIORDIA Amarauna gune autogestionatuan auzolan irekia.
10:00etan hasita, Amaraunan.

IRURTZUN Gazte eguna antolatu du Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladak.
12:30etik aurrera, Irurtzunen.

ALTSASU Scratch tailerra gazte gunean.
18:00etan, Intxostiapuntan.

BAKAIKU Paz de Ziganda eta Etxarri Aranatzko abesbatzen kontzertua Bakaikuko eliz koroaren 25. urteurrenean.
19:30ean, elizan.

ALTSASU Medida por medida. In Extremis Teatro.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Martina quiere bailar taldearen kontzertua Folk ametsetan zikloa zabaltzeko.
20:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Zaunka, Sutagar, Tximeleta eta Dj Juantxore kontzertuak.
23:00etan, frontoian.

IGANDEA 29

ALTSASU Alesbes eta Funes artean 52 km-ko joan-etorria

eginen da Mank-ek antolatuta eta Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak lagunduta. Aurretik izena eman.
07:00etan Altsasuko autobus geltokian.

ZIORDIA Amarauna gune autogestionatuan auzolan irekia.
10:00etan hasita, Amaraunan.

UHARTE ARAKIL Erkudengo Ama abesbatzen kontzertua.
12:00etan, Aralarko santutegian.

ALTSASU Pintto, pintto antzezlana Anita Maravillas & Portal 71 taldearen emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Doña Clara filmaren emanaldia.
17:00tan eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Barry Seal filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTEARTEA 31

ALTSASU. Oztopoak gaintuz, erresilientzia adibideak mahai-inguruan parte hartuko dute Oier Lakuntzak, Elena Txabarrik eta Milakoloreko ordezkariak.
18:30etik 20:30era, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Ukrainako Sophia ganbera abesbatzen kontzertua.



GUAIXE

ALTSASU VI Altsasuko arte azoka.

Arte Bidek arte garaikideko erakusketa antolatu du, non ibarreko sortzaileak nagusi diren. Lastailaren 29ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur gunean.

19:30ean, elizan.

ALTSASU Mugimendu bital adierazkorra klase irekia emanen du Paula Domanico Sanguinettik. Helduendako saioa da. Gorputza zaindu eta arreta paratzeko eta bizitasunarekin lotzeko.
19:30etik 21:00etara, kaputxinoen komentuan.

ASTEAZKENA 1

UHARTE ARAKIL Ziza eta onddoen erakusketa.
Goizean, plazan.

ALTSASU Beldur arratsaldea gazte gunean.
17:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Pragako haur abesbatza filarmonikoak kontzertua emanen du.
19:00etan, elizan.

OSTEGUNA 2

ALTSASU Handia filmaren emanaldia.
19:00ean, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Enaitz eta Arturo
A ze pare aita eta semea. Egun ona pasa biyek. Famili guziyen partes Zorionak



Itziar Azpiroz Imaz
Zorionak "Primo&PrIMAZ" guztion partez, beti egongo gara zurekin ITXI!!!

"Halloween" ospatuko duzu?

BAI	
1	%03,85
EZ	
25	%96,15
AGIAN	
0	%00,00



URTEURRENA

Goizeder Azazeta Pelaez

Poema labur hau, ez naiz ni hutsean idazten ari, negarraldi bakoitzean indarrez aurrera jarraitzen dugun guztiok somatzen dugu. Gure bihotzaren barrenean barrenean. Non minak, beldurrak, zoriontasunak eta maitasunak inmensitatearen mugak gainditzen dituzten. Bertan, taupadak geroz eta azkarragoak dira, eta bihotza gorputzetik ihes egin nahi balu bezala dihardu. Ze

pozik sentitzen naizen nire barrenean barrenean sentitzen zaitudanean. Inoiz baino biziagoa sentitzen naiz. Inoiz baino urduriago ere berriz besarkatuko zaitudala pentsatzen dudanean. Zorionsua naiz nire barrenean barrenean somatzen zaitudanean. Okerrak kiskaldu diren tokian, eta maitasunaren suak bizirik dirauen horretan. Nire burua zaintzen eta zauriak

estaltzen erakutsi didazu. Uneoro nire bizieta emozioz betetzen eta egiten nuena disfrutatzen lagundu didazu.

Urte bat pasata iada, guzti hau beste modu batera gerta zitekeela pentsatzeak ez du balio handirik atzera bueltarik ez dagoenean. Auskalo bizitzak zer ekarriko digun, edo zer eramango. Baina zin dagizut nire bihotzaren barrenean barrenean gordeko zaitudala betiko.

Maite zaitugu
Aita, ama eta Olatz



URTEURRENA

Goizeder Azazeta Pelaez



Indarrez aurrera jarraitzen dugu, zuk erakutsi bezala! Harrotasunez!

Zure lagunak

URTEURRENA

Goizeder Azazeta Pelaez



BIHARKO GOIZ EDERRETAN
INDARRA ETA AURRERA

Altsasuko Gazte Asanblada

URTEURRENA

Goizeder Azazeta Pelaez



Indarra eta aurrera.
Maite zaitugu.

Azazeta familia

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

Nafarroan etxe berri bat saltzen da 4.000 metro karratuko baratza batekin. 121.000 euro. Tel 650 42 89 82.

Lizarragako Azi Iturri Txokoa elkarteak San Klemente jaietarako (azaroaren 17tik 19ra) elkarte alokatuko da. Enkantea azaroaren 5ean eguerdiko 13:00etan izango da. Gutxienez 600 euro.

OHARRAK

Katalanez mintzaltaldea. Katalanez ikasi eta/edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzaltaldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxe-

tan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegaritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariari Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Euskoneus ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskoneus.com/laguntza, euskoneus@euskoneus.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es

edo sakana.admon@cederna.es


Goienar Iruñean. Landa-errek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarrokoekalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara jialdi deza, helduen jialdirako dela adieraziz.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (Klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezala. www.iragarkilaburak.com


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 27



Eguna hotzetik hasiko du, baina eguzkia gailenduko da egunean zehar.

Igandea, 29



Euririk ez baina tenperatura baxuak, hodeiak ere ugarituko dira.

Larunbata, 28



Euria egingo du eta tenperatura 4-5 gradu behera jeitsiko da.

Astelehena, 30



Temperaturaren jeitsierarekin jarraituko dugu. Euria ere agertuko da, udazken-giroa.

URTEURRENA

Jose Antonio Santamaria

II. urteurrena
2017ko azaroaren 1ean

Beti gure bihotzean

Zure emaztea, seme-alabak eta biloba

JAIOTZAK

• Celeste Dos Santos Dos Anjos, urriaren 4an Altsasun

HERIOTZAK

• Felix Salado Moreno, urriaren 17an Altsasun

40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Andaren eskulturak Bilbon ikusgai

Azken lan intimistenak daude Vanguardia galerian hilaren 6tik azaroaren 24ra arte

BAKAIKU

Altzuzako Oteiza museoan erakusketa bukatu ondoren Jose Ramon Andak Bilboko Vanguardia galerian du bere obra ikusgai. Bilbon duela bost urte egin zuen azken erakusketa bakaiquarrak, Arte Ederren Museoan. Oraingoa ez da hura bezain erakusketa handia, baina bere azken lan intimistenak ikusgai daude. Han erakusten ari denaren lagina joan den urteko otsaileko Art Madrid azokan eta aurtengo Logroño Supto ferian ikusgai izan zen.

Vanguardia galeriako ardura-dunek azaldu dutenez, "Jose Ramonen ikonografia gero eta geometrikoagoak espazio pertsonaletan eta mugetan sartzen gaitu. Egokitzen diren planoen ibiltze suabe batean forma eraldatu egiten da, eta akaberarik gabeko ibilbidean aritzen dira". Forma "sotil eta meheko" eskulturak, enborretatik erauziak; "izan ere, eskultoreak materia noble hori ezinezkoa arte argaltzeko erronka du eta bere nortasun zigilu bihurtu da". Bilbon ikusgai dauden azken lanetan "forma sinpleen ikerketa segitzen du, laukia, hirukia eta borobila, forma eta planoen konbinazio zehatzean".

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

Shakespeare gaurkotua ikusteko aukera

Eskaintza hori egingen du In Extremis Teatrok "Medida por medida" antzezlanarekin, larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Gaiarre antzokiak eta Nafarroako Gobernuaren eszena proiekturako Gaiarre Saria 2016-2017 irabazi du

ALTSASU

William Shakespearen Medida por medida testu klasikoari begirada garaikidea txertatuta heldu da Altsasura. In Extremis Teatro konpainia gazteak ekarriko du. Duela 400 urte idatzitako testua biziberrituko dute eta gaur egunera ekarri. Antzezlanaren gaurkotasunak gai unibertsalen parez pare jarriko du publikoak: ustelkeria, justizia, botera edota sexu xantaia.

Antzezlanak, jatorrizkoan bezala, Vienara eramango du ikusleak. Hiri itogarria, gobernu ustela, espetxeak, burdelak... Hala ere irudikatu zuen Shakespearek hiri hura. Bertako goi agin-



Medida por medida antzezlaneko eszena bat. SAREA



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Espainian preso politikorik ez dago, omen

Edo hala sinestarazi nahi digute behintzat. Egia esan, haien logikari jarraikiz hemen ez badago preso politikorik, inongo lekutan ere ez. Venezuela aipatzen dute nahi dutenean... Alkate bat preso dagoela diote. Hori bai omen dela preso politikoa. Baina Kataluniako hamalau goi kargudun preso ez omen dira preso politikoak, politiko presoak baizik. Bai, oso txiste ona.

Preso politikoak ez diren hauen delituak zerrenda ditzagun, benetan larriak baitira: Ekonomia eta Ogasun Idazkari Orokorra izatea da baten delitua, Kanpo Arazoetarako Bulegoko Arduradun izatea beste batena; Teknologien eta Telekomunikazioen Zentroko Zuzendari bat ere badago; Segurtasun Zentruko Arduradun Nagusia (Hacker

arriskutsu bat, atzerrian bizi diren katalandarrei elektronikoki bozkatzera behartzen diena); PuntCat Fundazioko arduradun teknikoak, proiektu teknologikoez eta segurtasun informatikoaz arduratzen dena, eta zerrenda osatzen, Kataluniatik alde egin beharrean Govern-i erreferendum ilegalak egiten sostegua ematen dion T-Systems multinazionalaren Zerbitzu Nagusien Zuzendaria. Hauek ez omen dira preso politikoak. Ez omen dituzte kartzelatu beren ideietatik, erreferendun ilegal bat egin nahi izateagatik baizik. Hala eta guztiz ere, hauek ez badira, ikus dezagun beste batzuen kasua: izan ere, izan badira beste bi gizajo preso politikotzat hartuak izan

direnak: Jordi eta Jordi. Hor ari dira pankartetan beren izenak aldarrikatzen: "Llibertat Jordis. Presos Politics de l'estat espanyol". Ba, ez, gobernuaren iritziz horiek ere ez omen dira preso politikoak. Herri honetan, nork bere ideiak izan ditzake askatasun osoz. Hori dela eta, hauek ez omen dira beren ideietatik kartzelatuak izan, sedizio delitua egin dutelako baizik. Hala diote. Hala sinestarazi nahi digute. Baina, zer da sedizioa? Zer delitu mota da hori?

Espainiko Errege Akademiaren iritziz (Euskaltzaindiak barka nazaran kompetenziaren hiztegia aipatzeagatik) sedizio hitzak zera esan nahi du: "autoritatearen, ordena publikoaren edota diziplina militarren aurka

tari Dukeak, Angelo epaile zorrotzari emanen dio boterea, erabili gabeak dauden legeak ezarri ditzan. Hala, Julieta haurdun uzteagatik, Claudio izanen da legearen gogortasuna sufritzen lehena eta bi egunetan burua moztuko diote. Isabel arreba, komentuko nobizia, izanen da legea aldatu ahalko duen bakarra, Angeloren desirari bere birjintasuna eskainiz.

Obra Eszena-Proiekturako Gaiarre Sariaren 2016-2017 edizio-ko irabazlea da, antzokiak eta Nafarroako Gobernuak antolatutako sariketa. Lanak une honetako antzerkigile harrigarrietako batek izenpetzen du bertsioa eta zuzendaritza: Jose Padillak. Obra gorpuzteaz bost aktore arduratuko dira: Txori Garcia Uriz, Leire Ruiz, Oier Zuñiga, Iratxe Garcia Uriz eta Juan San Segundo. Haien bidez tragedia gordinetik komedia zoroenera pasako gara. Guztia eszenografia oso flexiblea erabiliz, aktoreek darabiltena edozein konposizio osatzeko. Baina, konkretutasunetik ihes eginez, eszenaren hustasuna bilatuz, hala pertsonaiei erreparatzeko.

koletiboki eta indarrez altzatzea" baina "matxinadaren larritasunera iritsi gabe". A zer lasaitua! Larria da, baina matxinada askoz ere okerragoa. Eta hala ere, sedizioa, bere bigarren adieran, matxinada ere izan daiteke, pasioena bada ere: "sublevación de las pasiones". Baina ez dut uste gehiegi maitatzea, maite-suak eta garrak hartua egotea kartzelara eramateko nahiko delitua denik.

Haienezat, halere, ez omen dira Preso Politikoak... Euskal Herritik urrun dispersioan daudenak ere ez... Baina, benetan, urtebete gugandik urrun dauden Altsasuko Adur, Jokin eta Oihan ere ez? Ezetz diote, ozen eta gora, alkateari izkutuan grabatu zioten horiek.

Ekain Alegre Bertsokabiako finalean aritu zen atzo

Bertsolari altsasuarra Joannes Illarregi leitzarrarekin batera aritu da sariketa berri horretan

ALTSASU

Bertsokabia-Eugenio Arraiza sariketako aurreneko edizioako finala jokatu zen atzo arratsaldean. Erredakzioa ixteko garaian ez genuen haren berri. Lehiaketa horrek Nafarroako bertsolari gazteei trebatzeko eta jendaurrean kantatzeko aukera ematez aparte, Iruñerriko gazteak bertsozaletzeko xedea du. Hiru kanporaketa jokatu dira eta saio bakoitzeko irabazleek lortu dute finalerako sailkatzea. Bigarren kanporaketan eskuratu zuten atzorako txartela Ekain Alegrek eta Joanes Illarregik. Bikotea Alazne Untxalo eta Egoitz Gorosterrazu (berez sailkatutako Irati Majuelo ordezkaturako du azken horrek) eta Amaia Elizagoien eta Xabat Illarregi ariko da.

Sariketa berri horretan 18 bertsolarik parte hartu dute. Horien



Ekain Alegre bertsotan. ARTXIBOA

artean lau sakandar: aipatutako Alegrez aparte, Idoia Granizo, Saats Karasatorre eta Unai Artieda. Azken horiek joan den ostiralean Barañainen aritu ziren bertsotan 80 ikusleren aurrean. Lan polita egin arren ezin izan zuten finalerako sailkatu.

Gazte eguna despeditzeko lau musika eskaintza

Irurtzungo eta Arakilgo Gazte Asanbladak laugarren urtez Gazte Eguna anolatu du Irurtzunen. Eta hura despeditzeko, ohi den moduan kontzertuak izanen dira. Musika jaialdia 23:00etan hasiko da eta frontoian ospatuko da.

Iruñeko Zaunka taldeak zabalduko du musika emanaldia. Lauko formazio klasikoak punk doinuak aletuko ditu oholztatik. Punk doinuei metal doinuek hartuko diote lekukoa, Sutagarrek hain zuzen ere. Urte bat da *Maitasunari pasioa* diskoa aurkeztu zutela eta hura eta beste kantu ezagunak aurkeztera etorriko dira arrotza ez zaien plaza batera.

Talde eibartarraren ondoren festa giroa etorriko da. Tximeleta plaza taldeak dantzan jarriko ditu Irurtzungo frontoian bildutakoak. Dantzarako doinuak, jendea kantuan jartzeak... Eta guztia borobiltzeko oholtzara Jotatxo dj-ak bere musika eskaintza emanen die bildutakoei ordu txikietan.



Erkudengo Ama abesbatza. ARTXIBOA

Erkudengo Ama abesbatza Aralarren ariko da igandean

Aralarko santutegian azken urteetan ohikoa da lastaileko igandetako mezak abesbatzek edertzea. Horretan ariko da Erkudengo Ama abesbatza etzi. Baina elizkizunaren aurretik, 12:00etatik 12:30era, kontzertua eskainiko du. Ondoren, 12:30ean mezan lagunduko du abesbatza altsasuarrak. Iruñeko Asisko Frantzisko parrokiako abesbatza azaroaren 12an ariko da.

Europako bi abesbatza bisitan etorriko dira

Ukrainako Sophia ganbera abesbatzaren kontzertua, asteartean, 19:30ean, Irurtzungo elizan. Eta Pragako haur abesbatza filarmonikoak kontzertua emanen du asteazkenean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan.

IRURTZUN / ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Nazioarteko Abesbatza Zikloa Tolosako abesbatzen lehiaketaren abarora egiten da eta aurten 23. edizioa du. Aurreneko urteetan bezala zikloak emanaldiak iragarri ditu Sakanan, bi zehazki. Gurean kontzertua eskainiko duena Kieveko (Ukraina) Sophia ganbera abesbatza gaztea da. Ivan Bogdanov zuzendari gazteak sortu zuen 2008an. Abesbatza Lasso, Monteverdi eta Errenazimenduko beste konposatzaile batzuen moteteak eta madrigalak kantatzen hasi zen. 2009an Mykola Leontovichen obrak abesten hasiko ziren.

2010ean zuzendaritza Alexey Shamritskyk hartu zuen. Urte hartako azaroan Sviridoven bi kantata eta ukrainiar herri kanten moldaketak interpretatu zituzten. 2011n *Liturgy* diskoa grabatu zuten non sortzaile errusiarren obrak jasotzen diren.

2012an abesbatza jaialdietan parte hartzen hasi zen. 2013an Victoria nazioarteko abesbatza txapelketako lehen saria irabazi zuen Sophia abesbatzak. Hurrengo urtean Abesbatza Musika Ortodoxoko Hajnowka nazioarteko jaialdia irabazi zuen. 2016an Debrecengo (Hungaria) Bela Bartok nazioarteko abes-



Ukrainako Chamber Choir "Sophia!". SAREA

batza lehiaketako ganbera koralen maila eta zuzendari onenaren diploma irabazi zuten.

Bigarrena

Etxarri Aranatzaren ariko da Pragako haur abesbatza filarmonikoa. Txekiako abesbatza garrantzitsuenetako bat da haur koroa. 1932an sortu zuen Jan Kuhnek. Jatorrizko helburua hurrei kantuan irakastea zen, ahots naturala lantzea, intonazioa eta erritmo zorrotasuna arriskuan jarri gabe. Ordutik abesbatzak konposatzaileen, musika maite

dutenen eta arte erakundeen arreta piztu du. Abesbatzak gutxi behar izan zuen Opera Nazionaleko Teatroarekin eta orkestrekin lankidetzan hasteko. 1952an Txekiako Filarmonikako laguntzaile bihurtu zen.

1956an Parisko I. Joko Olimpiko Koralak irabazi zituen. Tolosako lehiaketa hirutan irabazi zuen lehen korala izan zen (1998an, 2008an eta 2013an). 1967an Jiri Chvalak hartu zuen zuzendaritzak eta berak igo zuen abesbatzaren maila gorenera. Egun, zuzendaria Petr Louzensky da.

Martina Quiere Bailar taldea Folk ametsetan zikloa hasteko

Larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean. Zikloa Maite Itoiz eta John Kellyk osatuko dute.

IRURTZUN

Folk musika ezin du hutsik egin Irurtzungo udazkenetik. Folk ametsetan zikloak atzera ere herri musikako doinuak ekarriko ditu Irurtzungo kultur etxera. Zikloa *Martina Quiere Bailar*

taldeak zabalduko du. Seikote batek osatzen du taldea, 2010ean Madrilent sortua. Euren erreperitorioan Europa erdialdeko folk musikak eragin handia du. Taldekideek diotenez, dantzarako herri musikatik edanez sortzen

dute ñabarduraz betea dagoen soinua.

Seikoteak bi disko ditu kalean. Aurrena *Vueltas y revueltas* izenburuko 2013an argitaratu zuten. Bigarrena, berriz, *Noviembre* du izena eta 2016koa da. Eszenara jotzera aterako dira Esther Sanchez (5 sokako bibolina), Sonsoles Arribas (biolina eta nykelharpa), Diego Sanchez (gitarra), Juan de la Fuente (perkusioa), Alberto Roman (kontrabaxua) eta Vasy Hrosu (akordeoia).

11 GALDERA



Bakaikuko abesbatzako kideak elizako atean. UTZITAKOA

Bakaikuko elizako abesbatzak asteburu paregabea du aurretik

25 urte bete ditu Bakaikuko abesbatzak eta urteurrena ospatzeko kontzertua eta beste prestatu ditu. Mezetan kantatzen dute, baita goizaldean aurorak ere.

Rebeka Mendoza BAKAIKU

1 Nolaz, zergatik sortu zen abesbatza?

Koru txiki bat zegoen aurretik, apaiz berri bat herrira ailegatu zen eta elizako goiko partetik abestera animatu zigan.

2 Zein da zuzendaria?

Osane Leitza abesbatzaren zuzendaria da. Betidanik izan da gure zuzendaria eta hemen bargaude, berarengatik izan da.

3 Zenbat kide zarete? Guztiak bakaikuarrak?

Hogeiren bat. Bai, nahiz eta batzuk bakaikuarrak ez izan bertan bizi dira. Kide gazteenak 15 urte ditu eta nagusienak 81. Zaleta-sunagatik hasi ginen abesten.

4 Zein da zuek daukazuen erreperitorioa?

Batez ere mezetarako prestatzen dugu dena, beraz, sakroa. Aurorak ere abesten ditugu eta herrirako euskal kanten kontzerturen bat ere eman dugu.

5 Zein da zuen abesti gustukoena?

Zaila dugu esatea, izan ere gure erreperitorioa mezetarako izatera mugatuta dago gehien bat, baina Josetxoren Aurorak nabarmenduko nahiko genituzke. Josetxo herriko apaiz bat izan zen eta guretako euskarazko aurora batzuk konposatu zituen. Beste kanta polit bat Madinaren Aita Gurea da.

6 Noiz entsetzen duzue?

Astean behin, ostegunero, 21:30ean. Igandero Bakaikuko elizan kantatzen dugu, hori bai, agorriean jai hartzen dugu eta ez dugu abesten. Eta entzuleak? Gero eta gutxiago, kar, kar, kar. Auroretan entzule gehiago ditugu, herrian zehar egiten baitira.

7 Oso urrun joan zarete abestera?

Egia esan, ez. Gehienez ezkontza batera edo auroroekin urtero egiten den Nafarroako Auroroen elkarretaratzerara. Zahar-egoitzetan eta EITBko mezetan ere abesten egon gara.

8 Larunbatean urteurrena izango da, zer egingo duzue?

Asteburu bat prestatu dugu. Larunbatean kontzertu bat egonen da, Etxarri Aranazko eta Atarrabiako Paz de Ziganda helduen abesbatzek abestuko dute. Akaberen haiekin abesti pare bat abestuko ditugu. Igandean 07:00etan aurorak izanen ditugu, 12:00etan meza egonen da, eta bertan 25 urte hauetan izan ga-

ren kide guztiak abestuko dugu, berrogei pertsona bilduko gara. Ondoren otamen bat izango dugu eta, gero, bazkari bat ere bai. Argazki erakusketa bat ere egongo dela 25 urte hauetan zehar egindako argazkiekin. Kontzertu garaian eta domekako mezan ikusgai izanen da.

9 Eta bertan jendeak parte hartzeko zer pentsatu duzue egitea?

Jendea kontzertuetara, argazki erakusketara eta meza eta gero egongo den otamenera parte hartzerantz animatzen dugu.

10 Anekdotak bitxiren bat kontatzeko...

Orain dela urte batzuk, herriko festak zirenean Corellako Auroroetara joan ginen, akordeoi-rik gabe. Beraz, geneukanarekin aurrera egin genuen. Ez genuen oso ongi pasa. Gainera, egun hartan bazkaldu gabe etxera bueltatu ginen.

Beste bat kontatze arren, orain dela aste bat pasatu zitzaiguna da. Abesbatzako kide bat entsetutik goiz atera zen eta bera ohartu gabe gelan giltzapetu zigan. 23:00ak ziren konturatu ginenean eta jendea mugikorretik hots eginez ibili ginen handik ateratzeko.

11 Zuendako abesbatza herriko parte garrantzitsu bat al da?

Bai, azkenean herriko talde batendako astean behin elkartzea garrantzitsua da, momentu onak elkarrekin bizitzea. Ez da soilik mezetan abestea, sortzen duzun giroa baizik. Gainera, urtero irteera bat antolatzen dugu eta Sakanako beste abesbatzekin asko elkartzen gara. Iturmendikoekin, adibidez, urtero birritan.

Bazkide sarituak

- Tania Gamboa Saez de Adan (Lakuntza)
- Anaitz Igoa Goñi (Etxarri Aranatz)
- Benita Nazabal Ulaiar (Olatzagutia)
- Amaia Ijorra Araña (Etxarri Aranatz)

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



CAMPING
ARTAZA

Ekain berri



AGUARIVM